



■ GREBA ZABOR BILKETAN

## Kale garbiketean bai, atez atekoan ez

Gipuzkoako garbiketa eta zabor bilketaren alorreko langileak greba mugagabea hasiko dute datorren asteartean eta Hernanin eragina kale garbiketean izango du.

ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek greba mugagabea iragarri dute heldu den abenduaren 19tik aurrera Gipuzkoako garbiketa eta zabor bilketaren alorrean, lan hitzarmenaren negoziatioaren alde. Hernanin ere eragin zuzena izango du kale garbiketean, baina ez atez atekoan. Negotiazio mahaia bildu zen eta ez ziren adostasunera iritsi, nahiz eta bi aldeak gerturatu. ||/2

■ HERNANI

### Lopez, saritua bere ibilbideagatik

Esther Lopez boleibol jokalaria hernaniarrak pasa den ekainean utzi zion jokalaria izateari eta bere ibilbidea goraiatzeko Gipuzkoako Kirol Galan merezi-tako saria jaso zuen. ||/4

■ URUMEA

### Bertsotarako eta entzuteko prest

Hernaniko Bertso Eskolako lau bertsolari finalistak prest dira BECeKo finalerako, baina zaleak ere gogotxu daude Barakaldora hurbiltzeko. ||/6-7

■ ASTIGARRAGA

### 'Ez dok hiru', antzezlan gaur

Emanaldi berezia eskainiko dute gaur, 20:00etan kultur etxean, Tartean konpainiako Patxo Telleriak eta Mikel Martinezek, beste hiru musikari-aktoreekin batera: *Ez dok hiru*. ||/10

■ GOIZUETA

### Eskolako jangela, obradore bihurtuta

Gabonak ate joka daude. Mazapanak eta turroiak egiten ikasteko aukera izanen da gaur. Horretarako Eskola jangela obradore bihurtuko da. ||/11

**GAUR KRONIKAN**

**Hernani /2-4**

Kontzertuak, Kontrakantxa, azokak, errugbia, eskelak...

**Astigarraga /10-11**

Emakume plaza, sagardo plaza, antzerkia, kirolak, literatura...

**Goizueta /11**

Esku pilota, antzerkia, hitzaldiak..



## Gabonak kantuz datoz

GABON kantuen jaialdiak, beste urte betez, Hernaniko Parrokia bete zuen eta adin guzti-etako abesbatzek parte hartu zuten. Gabonen hasiera hurbil dagoela adierazten du, gaur ospatuko diren Santo Tomas azoka guztiek

bezalaxe. Txistorra, ogia, taloak eta mazapanek ere beteko dituzte hernaniarren sabelak. Oraindik astebete geratzen da Eguberrietarako, baina Gabonak usaitzen dira eta Olentzero ere gertu dabil. ||/II

OPARITZEKO	OPARI BONOAK PRESTATZEN DITUGU	ASIE SANTUA 2018
<b>VENECIA</b> Apirilaren 13an Bilbotik hegaldia 3 gau 3* hotelean gosaria barne	340 <sup>100</sup> €	Club <b>Marco Polo</b> Bidaiek leidean (informa zaittegi) Japon, Tanzania, Finlandia, Peru, Vietnam
<b>ASTUN</b> Urtarrilaren 21tik 5era Dorostiek busa + 3 gau pentzio erdian + 4 eguneko forbits + 4 bukari	285 <sup>100</sup> €	<b>TENERIFE</b> Apirilaren 1ean Bilbotik hegaldia 7 gau 4* hotelean pentzio erdian, 2 heldu + ume bat
<b>SUANCES</b> 2 gau 5* hotelean, bi gosari + afari bat barne	160 <sup>100</sup> €	<b>CAMBRILS</b> Apirilaren 2an 6 gau 4* hotelean pentzio osoan, 2 heldu + 2 ume
<b>MADEIRA</b> Martxoaren 15a arte Bilbotik hegaldia 7 gau 3* hotelean, gosaria barne	492 <sup>100</sup> €	<b>NUEVA YORK</b> Apirilaren 2an Bilbotik hegaldia 6 gau 3* hotelean
<b>DISNEY</b> Martxoaren arte 3 gau Hotel Sta Fa, pentzio osoan + 4 egunetarako saserak 2 heldu + 2 ume	999 <sup>100</sup> €	<b>USHUAIA</b>
<b>GAZTEENTZAT ITSAS BIDAIA, MEDITERRANEOTIK</b> Apirilaren 2 eta San Bartzelekan arte 9 egun: Bartzelona-Napoles-Eroma-Florentzia-Vienonche-Gote. Pentzio osoan	579 <sup>100</sup> €	
<b>TALDEENTZAT ITSAS BIDAIA, KANTAUERTIK MEDITERRANEOIRA</b> Apirilaren 15ean Hernanitik 9 egun: Bilbo-Oporto-Lizboa-Cadix-Ceuta-Bartzelona-DENA BARNE	660 <sup>100</sup> €	TALDEENTZAKO PREZIO BEREZIAK, GALDETU GURE BULEGOAN
<b>ARGENTINA</b> Apirila arte Madritik hegaldia 13 egun: Buenos Aires-Ushuaia-Calafate-Iguazu, gosaria + birtek barne	2530 <sup>100</sup> €	

Aukera gehiago gure bulegoan eta  
[www.hernanibidaiak.es](http://www.hernanibidaiak.es)  
[www.bidaibila.com](http://www.bidaibila.com)

**HERNANI**  
 BIDAIAK  
 Ubieta, 6  
 943 33 00 49

JARRAITU:



## I GREBA MUGAGABEA

## Kale garbiketean bai, baina atez atekoan ez du eraginik izango zabor bilketaren grebak

Greba mugagabea abenduaren 19an hasiko da, 21:00etatik aurrera, eta Hernanin kale garbiketean aritzen diren langileak egingo dute, ez ordea atez atekoan aritzen direnak.

ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek greba mugagabea iragarri dute heldu den abenduaren 19tik aurrera Gipuzkoako garbiketara eta zabor bilketaren alorrean, lan hitzarmenaren negoziazioaren alde. 1.200 langile inguru biltzen ditu sektoreak.

Hernanin grebaren eragina desberdina izango da beste herri askorekin alderatuta. Kale garbiketean aritzen diren langileek egingo dute greba, baina zabor bilketako langileek ez. Atez atekoa beste enpresa batek kudeatzen du eta bertako langileek ez dute

grebarik egingo. Beraz, Hernanin eragina bestelakoa izango da, inguruko beste herriekin alderatuz.

Lan hitzarmenaren indarraldia 2015eko abenduan bukatu zen eta 1.200 langileri eragiten die. Ostegunean negoziazio mahaia bildu zen, baina

ez ziren akordio batera iritsi nahiz eta aldeak gerturatu. Zerbitzu minimoetarako ere ez dira ados jarri.

Topaketa gehiago izango dira, akordio bat erdiesteko asmoarekin asteartea iritsi baino lehen, baina langileek bi urte eman dituzte negozi-

zioan, «eta grebarako prest daude», berretsi zuen ELAko Jose Luis Ugartek.

Gehitu duenez, kaltetuak «udalak eta erabiltzaileak» izango dira; izan ere, Gabonetan kontsumoa areagotzen da, eta, hortaz, zabor gehiago sortzen da. II

## I KONTZERTUA

## Txistu-danbolina eta organoa uztarturik, Parrokian

Jose Ignazio Ansorena eta Ana Belen Garciak kontzertua eskainiko dute San Joan Bataiatzailea elizan, 20:00etan.

TXISTU-danbolina eta organoa uztartu dituzte Jose Ignazio Ansorenak eta Ana Belen Garciak, txistu-danbolina eta organoa uztartzen dituen emanaldian. Dagoeneko bi kontzertu eskaini dituzte eta gaur, Hernaniko San Joan Bataiatzailea parroki-elizan, 20:00etan.

Programak ordu beteko iraupena izango du. Hasieran Donostiako Santa Maria

Basilikako organo jotzaile izan ziren Mateo Albéniz, José Juan eta José Antonio Santesteban aita-semeen omenaldi moduko printzak erakusten ditu. Hirurok herri musikari ekarpen mamitsua egin zioten. Haien ondorengoa eta lanaren jarraitzailea da Ana Belén García, eliza beraren organo jotzaile titularra.

Jarraian XIX. mendearen amaieratik gaur arte txistu

musikaren erakusketa dator; egileen artean izen handiko musikariak agertzen dira. Berezitasun bitxia du: obrak libanotar musikari batek, Naji Hakimek, txistuaren hotsak liluraturik, egokitu ditu bikote egitura honetara. Programaren amaieran gaur egungo estetika musikalaren eztaba antzekoa gertatzen da egile honek berak sortutako *Diptyque* obran. II

## I HERNANI ERROTZEN

### Karpa eta sariak, gaur udaletxeko arkupetan

Hernani Errotzen elkarteak postua jarriko du, gaur, udaletxeko arkupetan. *Ezagutu Hernani* lehiaketaren sariak banatuko dira. 11:30etatik 13:30etara eta 18:30etatik 20:30etara izango da zabalik. Saria jasotzerik ez duenak bidali mezua eta datuak [herriaerrotzen@gmail.com](mailto:herriaerrotzen@gmail.com) helbidera. II

## I SOS ARRAZAKERIA

### Arrazakeriari buruzko tailerra Biterin, bihar

SOS Arrazakeriak, gaur, Hernanin, komunikazioa, sare sozialak eta arrazakeriari buruzko tailerra eskainiko du 14 eta 30 urtekoentzat. 10:00etatik 13:30etara izango da Biterin. II

## I AZOKA

### Elurra gai nagusia, azoka berezian

Bigarren eskuko azoka jarriko da gaur eta elurretako arropa eta materiala saldu eta erosteko aukera dago, 10:00etatik 14:00etara, Atsegindegian. II

## I BERRIAK

### Hernani Txartelaren irabazleen sariak, gaur

Hernani Txartelaren zozketaren irabazleek gaur jasoko dituzte sariak, 13:30etan, Gudarien Plazan. Sariak PREMIO jartzen duen erosketaren tiketarekin joan behar dute eta sariak eskuratuko dituzte. II

## I SAHARA KARABANA

### Jendea behar da gaur supermerkatuetan

Sahararen aldeko Karabanarako elikagaiak bilduko dira supermerkatuetan. Laguntzeko jendea behar da eta prest dagoena Plaza Berrin 09:30etan. II

## I ARGAZKI MERKATU TXIKIA

### Atsegindegian bihar jarriko da merkaturia

Outlet argazki merkatu txikia jarriko da bihar Atsegindegian. Bertan argazkiak egongo dira ikusgai eta eskuragai, goizean zehar. II

## I TXISTU KONTZERTUA

### Eguberriko txistu kontzertua, Milagrosan

2017ko Eguberriko txistu kontzertua eskainiko da bihar, 13:00etan, Milagrosan. Txistulari Banda eta gitarrak-jolea izango dira partaideak. II

## I KIROLDEGIA

### Igerilekua gaur itxita, goizean zehar

Eskola kirola dela eta, gaur, igerilekuak itxita egongo dira goizean. II

## I KONTRAKANTXA

## Gaztetxearen hamaika urteak ospatuko dira goizetik gauera

Ekitaldiak, 10:00etan hasiko dira maskulinitate tailerrarekin eta 22:00etan hasiko da bukaera emango dion dantzaldia.

HAMAIKA urte beteko dira gaur Kontrakantxa Gaztetxearen ateak ireki zituztenetik, eta ospakizun horren bueltan, egitarau berezia antolatuko da aste guztian zehar. Urteurrenaren ospakizun haundia gaurko antolatuko da.

Drogarik gabeko eguna izango da, «egungo jai ereduari, kontsumo ereduak eta bertan sortzen diren menpe-

kotasunen beharretan oinarritzen diren harremanak kapitalismoa indartzen duten ereduak dira».

Horregatik alternatiba proposatu nahi da. 10:00etan maskulinitate tailerra egongo da eta ondoren, 14:00etan, elkartruke bazkaria (bakoi-tzak etxetik ekarri eta denen artean elkarbanatu). Jatorri desberdinetako janariak

egongo dira eta beste herrialdeetako plateraz gozatu ahalko da.

Arratsaldean, 17:00etan tribial jokura jolastuko da; eta azkenik, 22:00etan dantzaldia egongo da, gazteek gozatu dezaten.

Antolakuntzatik azpimarratu nahi da egun guztian zehar ezingo dela inolako drogarik kontsumitu. II

## ■ BERTAKO IGOGAILUAK PUBLIERREPORTAJEA



Bertako enpresako hainbat teknikari, mantentze lanetarako erabiltzen dituzten autoekin.

# Bertako igogailuak: mantentze-lan profesionalaren aldeko apustua

OSPAKIZUNETAN daude Bertako enpresan. Hiru urte beteko dituzte laster, eta badute zer ospatu: Euskal Herrian mantentze-lanak egiten dituzten enpresen artean gehien hazi dena da. Bizilagunen komunitate askok erabakitzen dute mantentze-lan enpresa aldatzea eta Bertakoren aldeko apustua egitea. Urtean, batez beste, 200 komunitatek egiten dute 10-15 urte arteko eskarmentua duten teknikarien aldeko hautua.

Hori da, gainera, Bertakok duen baliorik handiena: teknikariak. Euren sortutako enpresa da. Beste leku batzuetan lanean jardun eta hango balibideak ikusita, enpresa berria sortzeko erabakia hartu zuten pertsonak. Teknikari horiek 24 orduko zerbitzu erreala ematen dute; hau da, larrialdietan bakarrik barik, abisu guztiak kontrolatzen eta premiak betetzen dituzte, astelehenetik

Benetako 24 orduko zerbitzua ematen dute, astelehenetik igandera, 365 egunetan

igandera, 24 orduz eta urteko 365 egunetan.

Dena den, eguneroko lan onari esker, egiten duten mantentze-lan onari esker, matxurengatik jasotako abisuak oso gutxi dira. Teknikariek egiten duten lan onak, gerora dauden abisuen kopurua txiki-tu egiten du, nabarmen.

### Euskararen garrantzia

Bertakok duen beste balio garrantzitsu bat euskararen erabilera da. Lehen momentutik euskaraz jarduten dute: aurre-

kontuak egiterakoak, komertzialen bisitatan, administrazioekin berba egiterakoan, kontratuak idazterakoan... Askok eta ondo baloratzen dute bezeroek euskararen erabilera.

Eta behin Bertako aukeratu ostean, bezeroek askatasun osoa dute nahi dutenean kontratua eteteko. Kontratu libreak egiten dituzte. Urtebetekoak. Bezeroak engainatu barik eta iraupen-konpromiso barik.

Ia hiru urteko ibilbidean, bezero askok Bertako aukeratu dute eskaintzen dituen tarifengatik. Oinarrizko kontratua hileko 80 euro ingurukoa da eta arrisku orotakoa, hileko 100ekoa. "Prezio logikoak dira. Ez da normala Euskal Herriko enpresa batzuek 160 euro kobratzea arrisku orotako zerbitzurengatik eta inguruko eskualdeetan prezio hau ia erdira jaistea, bertan ditugun enpresa askok gure tarifa merkeagoak erabiltzen dituzte. Hori bai, Euskal

Herri inguruan ditugun eskualdeetan", diote enpresakoek.

### Larrialdi zerbitzua

Ia hiru urteko ibilbidea laburra da, baina nahikoa izan da lorpen arrakastatsuetara heltzeko: bezero guztiek dute igogailuaren larrialdi sistema telefonoetara lotuta eta guztiek dituzte LED argiak. Argi kontsumoa murrizteko automatikoki itzaltzen diren argiak, alegia.

Duela ia hiru urte sortutako enpresa izanda ere, bere zabalkundea itzela izan da beste bailara eta lurralde batzuetara.

Gipuzkoan, Arrasaten eta Anoetan biltegiak ditu Bertako enpresak. Hori horrela, ematen duten zerbitzua oso azkarra da, profesionala eta gertukoa.

943-90 34 50 telefonoan eska daiteke informazioa eta aurrekontua. Beti ere, lehen berba euskaraz jasota. ■

## Hobekuntza teknologikoak igogailu zaharretan

1- Telefono zaharretako instalazioak berritzen dituzte. Hori horrela, uneoro daude kontaktuan bezeroekin. Berehalako erantzuna ematen diete abisuei eta ezustekoei.

2- Igogailua modernizatzeko aukera ematen dute. Aukera ematen duten maniobretan igogailuak monitorizatuta dituzte.

3- Igogailu zaharrak modernizatzeko eta berritzeko elektronika osoa eta motorra aldatzen dituzte. Era berean, ordaintzeko erraztasunak ematen ditu Bertakok. Igogailu batek arazo asko dituenean, ezinbestekoa da elektronika zati osoa aldatzea.

## Eskaintzen ditugun zerbitzuak, hilean 100 eurotik aurrera

- 24 orduko zerbitzua abisu guztientzat
- Pieza guztiak barne, orotariko zerbitzuan
- Iraupen-konpromiso gabeko kontratua
- Larrialdi telefonoa doan, instalazio guztietan
- Bakarrik itzaltzen diren LED argien instalazioa doan
- Efizientzia energetikoan oinarritutako ikuskapena



BOLEIBOLA

# Ibilbideagatik omendua, Esther Lopez haundia

*Aurten eten du bere ibilbide profesionala Munduko liberorik hoberena izan zenak eta Gipuzkoako Kirol Galan omendu dute.*

GIPUZKOAKO Kirolaren Galan elitearen barruan egindako ibilbideari amaiera eman dioten kirolari gipuzkoarrak gogoratu eta omentzeko une bat gordetzen du beti. 2017garren urte honetan, beren diziplinan haundiak izan diren hiru kirolari omendu dira eta horien

artean Esther Lopez voleibol-jokalari hernaniarra. Ekainean agur esan zion behin betiko boleibol jokalaria profesional izateari, bi hamarkada luze elitean egin ostean.

Egoera fisiko ezin hobean eta kirol bizitza 42 urtera arte luzatu ondoren hartu zuen

boleibola uzteko erabakia Esther Lopezek, baina bere egunerokoak kirol horri lotua jarraitu du eta CV Logroño taldeko behe mailtako koordinatzaile lanak, betetzen ditu hemendik aurrera, Hernanin inoiz egon den kirolaririk haundienak. ||

**Eskelak**

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **NICOLAS GOITIA LEIZAOLA**  
(Margarita Aricetaren alarguna)  
Atzo hil zen Hernanin, 102 urte zituela  
- Goian Bego -




Seme-alabak: Maria Pilar eta Javier (+), Julian (+) eta Mila; bilobak: Nicolas eta Itziar, Nerea eta Sergio, Leire eta Jon; birlobak: Nicolas eta Iker; ezkon anai-arrebak; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela **GAUR, LARUNBATA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**Hernanin, 2017ko abenduaren 16an**

OHARRA: Gorpua HERNANIKO ORBEGOZO FUNERARIA TANATORIOAN egongo da arratsaldeko 6ak arte

**ROKE URRUZOLA ANSA**




*Ez niri agur esan gero arte baizik.*

**BERE AMAREN LAGUNAK**

**Hernanin, 2017ko abenduaren 16an**

**ROKE URRUZOLA ANSA**




*Urak dakarrena urak daroa, lurrak emandakoa lurrean gelditzen da.*

**AIALAREN LAGUNAK**

**Hernanin, 2017ko abenduaren 16an**

**ENRIQUE SOLANA MAGDALENO**



*Gure ondotik joan zara, baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.*

**HERNANI BHI INSTITUTUKO GURASO, IKASLE, IRAKASLE ETA LANGILE EZ IRAKASLEAK**

**Hernanin, 2017ko abenduaren 16an**

**KIROL TABLA ASTEBURUKO PARTIDUAK**

Mat. Emeg. Prefir.	Hernani-Dilabona	Zubipen	Gaur 18:00	<b>ESKU PILOTA - Gipuzkoako Txapelketa</b>	Nagusak	Maribel Lasa/Gea/Gea	Hernanin	Bihar 11:00				
Mat. Olor. Jabi. Niza.	Hernani-Fondosa	Zubipen	Gaur 12:00		Nagusak	Lapasko/Brillo/Artemund	Gorken	Gaur 19:45				
Nak. Zubiriak	Afonga-Hernani	Raudalen	Gaur 19:00		Nagusak	Xorri/Regaly/Yakoba	Gorken	Gaur 19:30				
Mat. Oloroko Zub.	Platzeno-Hernani	Platzeno	Gaur 17:00		Nagusak	Isko/Donostia	Gorken	Gaur 17:15				
Mat. Zub. Igoe	Hernani-Artigas/Luberri	Zubipen	Bihar 12:30		Kadetak	AMZ Tegeto/Orpe	Gorken	Bihar 09:15				
Mat. Kad. Olor. Milla	Hernani-Euzabakana	Zubipen	Gaur 18:00		Kadetak	Opil/Parinas	Gorken	Bihar 11:00				
Mat. Kad. Igo Milla	Artigas/Luberri-Hernani	Berri	Gaur 13:00		Kadetak	Isko/Mikel Lasa	Gorken	Bihar 11:00				
Mat. Kad. Igo Milla	Hernani-Triborpa	Zubipen	Gaur 09:00		<b>ESKU PILOTA - Txapelketa pribatuak</b>	Inferiak	Dokargu/Onketa gabe	Lizarran	Gaur 17:00			
Nak. Olor. Iri. Pd	Hernani-Toboa	Zubipen	Bihar 09:30			Inferiak	Enarik/Onketa gabe	Lizarran	Gaur 17:30			
Nak. Olor. Iri.	Hernani-Uzartil	Zubipen	Bihar 09:30			Umore Oria Tx.	Golzarra-Apeltza/Eda	Golzarra	Gaur 19:00			
Mat. Olor. Iri.	Real Sociedad Hernani	Zubipen	Gaur 18:00	Umore Oria Tx.		Deizaga/Elorri/Walero	Golzarra	Bihar 11:00				
Mat. Iri. Igo anika	Internacional B-Hernani	Herrikoak	Gaur 18:00	Umore Oria Tx.		Sarberria-Onauri/Walero	Golzarra	Gaur 19:00				
<b>ESKUBALDUA</b>	Tolos/Hernani Sufari	Urduliz	Bihar 11:30	<b>ERREMONTEA</b>		3go partidan	Aldabe/Aguiar/Golzarra V-Zubi	Galarran	Gaur 19:00			
	Nak. Kadetak	Hernani/Anax/Ortiz	Kirologian			Gaur 11:00	Esaketa Torneo	Molin II Iri/Alto/Elorri III	Galarran	Gaur 19:00		
	Mat. Kadetak	Aita Zorrotz/Hernani/Toboa	Zarautzen			Bihar 10:00	3. partidan	Umba/Aguiar/Elorri II-Endika	Galarran	Gaur 19:00		
	Nak. Inferiak	Bere Bere-Hernani/Sotza	Paco Tolain			Bihar 09:30	4. partidan	Steckero IV/Labaka/Sagarika/Garros	Galarran	Gaur 19:00		
	Nak. Inferiak	Argit/Hernani/Garros	Laguardin			Bihar 10:00	<b>BOLEIBOLA</b>	Nak. Kadetak	Artemund/Hernani	Arbolakalen	Gaur 19:30	
	Mat. Inferiak	Ego-Hernani/Pizeta/Gorropi	Urdin		Bihar 12:30	Nak. Inferiak		Raudalen/Hernani	Suñan	Gaur 19:30		
	<b>KASKIBALDUA</b>	Hernani-CD Internacional	Kirologian		Gaur 18:45	<b>ERRUGBIA</b>		<b>Beste aurkari zuzen baten aurka, urtea amaitzeko</b>				
		CD Internacional-Hernani	Hornear		Gaur 18:45			Cisnerosen kontra jokatuko du bihar, 12:30etan, Madrilan eta puntu bakarreko alde dago saikapenean bien artean. Bigarren itzulian bihar hasiko du Hernanik, Madrilan 12:30etan Complutense Cisnerosen aurka. Madrildarrak aurkari zuzenak dira saikapenean, puntu baten alde dago eta bi taldeen artean, Cisnerosen alde. Polidori entrenatzaileak gorritz margotua du egutegian eta Gabonetako festak lasai pasa nahi ditu Hernanik norgehiagoka irabazita.				
		Kadako mat.	Sotz Josuak/Hernani		Josulak			Gaur 18:00				
		Inferiak mat.	Hernani-Hornear/Canino/DeP		Kirologian			Bihar 10:00				

**I. URTEURRENA**

† **Consuelo Iraola Aguirre**  
(Jose Noriegaren alarguna)  
2016ko abenduaren 11an hil zen, 83 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartuta.  
-Goian bego-



Haren seme-alabak: Xabier, Mari Jose eta Felix Azpeitia; bilobak: Eneko, Maddi, Andrea eta Amaia; anai-arrebak: Ignacio (+) eta Konbix Amonarraiz, Juanito (+) eta Jacinta Arrieta; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela **GAUR, LARUNBATA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, Joan Bataiatzailearen** parroki elizan egingo den **urteurren meza**. Aldez aurretik, mila esker.

**Hernanin, 2017ko abenduaren 16an**

Helbidea: Oarso kalea

**I. URTEURRENA**

† **Jesus Urdampilleta Aguirre**  
2016ko abenduaren 13an hil zen  
-Goian Bego-  
Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.



**Urteurreneko meza, BIHAR, IGANDEA, goizeko 10:00etan, Erefiotzuko ANTONIO DEUNAREN parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.**

**Aranon, 2017ko abenduaren 16an**

**FUNERARIA ORBEGOZO**

**ERRAUSKETAK**

24 orduko tfnoa.  
**943 33 10 20**

[www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)



HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

**Zentrala HERNANI**  
Latsunbe, 7



**Gaur 10:30etatik  
14:00etara  
PLAZA BERRIN EGONGO  
GARA GURE PRODUKTUAK  
SALTZEN.**  
(Eguraldi txarrarekin Atsegindegina.)



**MARGOTZEKO IPUINA  
OILAR TXIKIA (2017)**

Egilea: Jexux Eizagirre Portillo  
Ilustrazioak: Alai Zubimendi  
Hizkuntza: Euskara  
Prezioa: 2 €  
Ipuin pedagogikoa, interaktiboa eta sormena lantzeko balio duena; margotu, marraztu, pegatinak itsatsi, irakurri eta idatzi!



**KOMIKIA  
HESOLA (2017)**

Ilustrazioak: Alai Zubimendi  
Hizkuntza: Euskara + Katalaniera + Arabiera  
Prezioa: 2 €

Hesolaren kanta komikian bihurtuta.


**ESKAINITZA BEREZIA:  
5 ipuinak 20€tan**



**MOZOLOAREN BIDEA (2016)**

Egilea: Jexux Eizagirre Portillo  
Iturria eta jatorrizko egilea: Hovhannes Tumanyan  
Ilustrazioak: Ainara Azpiazu Aduriz  
Hizkuntza: Euskara + Armeniera  
Prezioa: 10 €


Ipuina armeniarra da. Nekazari pobre batek, bere egoera tamalgarririk ateratzeko asmoz, Jakintsuaren bila jotzen du. Ibilbide horretan, hainbat pertsoniarekin egingo du topo.



**ZOZOMIKOTEAK (2015)**

Egilea: Jexux Eizagirre Portillo  
Ilustrazioak: Alai Zubimendi  
Hizkuntza: Euskara  
Prezioa: 10 €

Artzaina eta urtaroen arteko tirabirak kontatzen dira bertan. Zozomikoteak, harrokeriaren inguruko ipuina da.




**CHERTAT ETA LEHOIA (2015)**

Egilea: Jexux Eizagirre Portillo  
Pentsio arabiarra: Cheij Ahmed Bahia  
Ilustrazioak: Abdi Ami Omar  
Hizkuntza: Euskara + Arabiera  
Prezioa: 10 €

Ipuina sahararra da. Chertatek eta lehoiak tratu bat egiten dute. Baina tximua sartzen da tartean, eta...

**BURBUNAK  
ETA ETSAYAK  
(2015)**

Hernaniko natura eta ahozko ondareari tiraka



Egileak: Eñaut Agirre, Iñaki Sanz-Azkue, Jon Mari Beasain, Joxan Ruiz.  
Hizkuntza: Euskara (azpititulua: euskaraz, gaztelaraz, ingelesez)  
Prezioa: 5 €

Animalia eta landareen izenak, hizimodua, sinekeriak, mitoak... 25 protagonistek argituko dute zer diren burbunak eta etsayak.

**ALDABA JOKA  
(2003)**

Hernani; XX. mendeko ahozko historia txikia. (Liburua + DVDa)



Egilea: Urko Apaolaza  
Argazkiak: Dobera Euskara Elkartea, Hernaniko Udal Artxiboa, Kutxa Fototeka.  
Hizkuntza: Euskara  
Prezioa: 2 €

Hernaniko historia txiki honen oinarrian 27 herritarren kontakizunak daude.

**ERRITMOA,  
KAZETARIAREN  
BATUTA  
(2012)**



Egilea: Jexux Eizagirre Portillo  
Hizkuntza: Euskara  
Prezioa: 2 €

Batez ere kazetariari, baina baita euskaraz idatzi nahi duen orori zuzendutako liburua da, erritmoak idaztean ere duen garrantzia azaltzen duena. Bertan, Hernaniko Kronikaren esperientzia kontatzen da.



■ BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

## BECetik eta BECera begira, hernaniarrak

Txapela Hernanira ekartzeko aukera sekula izan den handiena da, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalisten erdiak dira eta, Iraulio Panttalone Bertso Eskolakoak. Zita bihar, goizeko 11:00etan hasita, Barakaldoko BECen.



JON ALTUNA IZA 'OXAN'

BARAKALDOKO BECen bihar jokatuko den Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako zortzi finalistatik lau Hernaniko Iraulio Panttalone Bertso Kabikoak dira. Oso pozik dira herriko bertsolariak, eta oro har herri-tarrak, zortzigarrena, finalista berria, Unai Agirre hernaniarra delako. Bera ere bai. Denek egin nahi dute saio ona; finala «irekia» dagoela diote. Zortzi bertsolari zerotik hasita 14.500 ikusleren, eta saioa, telebistaz ez bada internetez, ikusiko duten milaka zaleren aurrean. Bertsoa matematika ez bada ere, probabilitatea Hernanira begira dago.

Txapelketa Nagusiak eragin handia dauka. Hernanin eta inguruan udazkena desberdina izan da aurten. Ez bakarrik lehian diren bertsolarien zat. Baita senide, lagun eta, oro har, zaleentzat. Irailaren 23an txapelketa hasi zenetik hainbat herritar ikusi ditugu Txapelketa Nagusiko agertokietan ikusle, antolatzaile, argazkilari, kazetari, laguntzaile... eta dotore asko kantari ere bai, final laurden eta finalerdietan. BECeko finalean ere mordoxka izango dira bertan. Goizeko 11:00etan hasiko da finala, eta bazkaltzeko etenaren ostean, 16:30etan arratsaldekoa.

Euskal Herriko 17. txapela Hernanira ekartzeko aukerak sekula baino handiagoak dira, probabilitateei begira behintzat bai: bi bertsolari hernaniar finalean dira, Maialen Lujanbio seigarren aldiz eta Unai Agirre estraineokoz; Iraulio Panttalone Hernaniko bertso kabiko beste bi ordezkari ere bai, Aitor Mendiluze eta Beñat Gaztelumendi. Hala ere, finaleko beste lau bertsolariak ere handiak dira, txapela janzteko aukerari muzin egingo ez diotenak, gogo eta ahalegin berbera jarriko dute-



Elkarrekin aritu dira entrenatzen, Bertso Eskolan, Maialen Lujanbio, Unai Agirre eta Aitor Mendiluze.

**Maialen Lujanbio:** «Nik nahiko nukeen saioa aterako balitzait, hortxe egongo nintzateke. Orain, aterako ote zaidan... Hori da kontua».

nak: Amets Arzallus egungo txapelduna, Igor Elortza, Sustrai Colina eta Aitor Sarriegi.

Hernanin Txapelketa nagusiak duen jarraipen eta eraginarekin seinale dira Andre Kaleko bi erakusle. Hiru arropa denda lau maniki bertsolari moduan atondu dituzte. Oa gozodendako sarreraren txokolatezko Maialen Lujanbio eta Unai Agirre ageri dira.

Udazkena bertsoz bete bete izan dute herritar askok. Esate baterako, Amagoia Mugika, gaur8 eta Garako kazetariak hainbat saioaren kronikak idatzi ditu, eta BECen ere lanean izango da. Bertsolariak elkarriketatatu ditu Kattalin Minerrek *argia.eus*-eko Zautela saioan, azkena Amets Arzallus egungo txapelduna. Beste askok egin dituzte ekarpenak sare sozialetan, Estitxu Eizagirre Argiako

**Unai Agirre:** «Txapela Hernanira ekartzeko zailena nik daukat, baina karga handia baldin badauka, beste bati lagunduko diot bizkarrean ekartzen».

zuzendariak, besteak beste. Jon Urbe eta Alberto Elozegi argazkilariak ere lanean aritu dira, hurrenez hurren, Argazki Press eta Bertsozale Elkartearentzat; lehenengoak etxetik jarraituko du finala, bigarrena han izango da, egun osoan argazkiak ateratzen.

### Antolatzaileak, pozik

Aritz Zerain Bertsozaleen Elkartearen idazkari eta txapelketaren antolatzaileak ere, galtza bete izan du egunotan. Ostiratik Barakaldon da, finalaren antolaketari azken ukituak eman eta unean uneko egin-beharrei erantzuten. Berak eman dizkigu finalari buruzko zenbait xehetasun...

Aurten 14.500 ikusle izango dira, «ez dago hainbeste lagun hartuko dituen leku estali handiagorik Euskal Herrian».

**Aitor Mendiluze:** «Saio on bat egin nahi dut, ez nau beste ezerk kezkatzen; ez sari eta ez puntu. Bertsotan egin nahi dut, bertsotan ondo egin».

Beste aukerarik ez dago, eta aurreko finalarekin alderatuz, 500 lagunei lekua egin diete.

Finaleko sarreraren salmenta azkarra aipagarria izan da. «Hilabete eman zitzaizkien bazkideei sarrerak erosteko; gero, denentzat ireki zenez, lehenengo egunean sei mila sarrera saldu ziren, eta bizpahiru astetan denak agortu».

Final laurden eta finalaurretako saioek izan duten erantzun ona eta maila altua ere nabarmendu du Zerainek. Antolatzaileak pozik daude, «zale asko dabil eta gustura»; apustu egin zuten euskal lurralde guztietara iristeko, «hain bertsozale ez diren tokietan ere erantzuna oso ona izan da, ahalik eta aforo zabalenak bilatu eta ia denak bete dira. Bertsoen mailaren aldetik ere oso ona izan da txapelketa, ez da saio

batean ere erori», azaldu du Zerainek berak.

### Telebistaz zuzenean

Telebistaz ere jarraipen handia izan du txapelketak. ETB4n zuzenean eman dituzte saioak eta «saltoa» eman dute *Aulki Jokoa* programa bereziarekin: «aspaldi ari ziren produktu telebisibagoa eskatzen. Gu, aldiz, zer bota, nola bota eta zenbat bota zaintzearen aldekoak izan gara... Orain egin dugu apustua eta uste dut asmatu dugula formatuarekin».

Zuzen zuzenean emango da finala ETB1n. Saioetan jende asko dabil, baina etxetik ere jarraipen handia egiteko ohitura dago, irrati, telebista eta, gaur egun, internetez. «Sare sozialetan eztabaida asko piztu dira, batzuk oso interesgarriak», eragina daukatenak bertsolariengan, «onerako eta txarrerako».

Oihartzun handia izan du Agirrek finalerako txartela lortzeak. Kanean ez zegoen bertsolariaren izena aipatu beharrik, «ze poza» edo «ederra izan zen» entzun orduko jakina zen nortaz eta zertaz ari ginen...

### Sarrerarik gabe

Sarrerak urriaren erdirako agortu ziren, baina batzuek ez dute BECera joateko esperantzarik galdu, eta azken unera arte ibili dira sarrera preziatuaren bila. Sarrerarik ez duten askok, lagunartean ikusiko du finala telebistaz.

Igor Muñoa sukaldaria da sarrera gabe geratu denetarikoa. Pena du aurtengoan ez duelako BECera joaterik, baina egun ederra pasatuko dute lagunak: «50 euroekin (finaleko sarrera 36 gehi joan-etorria 14) hamaiketako, bazkari eta bazkaloste ederra egingo dugu». Beste asko ere hainbat etxe eta txokotan elkartuko da finala lagunartean ikusteko.

### Lujanbio eta Agirre

Herritar ugari joango da BECera, finalean Maialen Lujanbio eta Unai Agirre entzutera. Maialen da, zalantzarik gabe, aurten txapela janzteko hautagaietako bat; eta berriro, finaleko emakumezko bakarra. Bazirudien aurten plazetako argazkia

Zorionak eta  
URTE BERRI ON!

URUMEAKO  
**kronika**





**Gabonak Hernanin**

# Txistorra, mazapan eta kantuak, ahoan

*Iritsi dira Gabonak! Astebete falta da Gabon gauerako, baina dagoeneko, giroa nabari da. Atzo, Gabon kanten jaialdiarekin hasi, eta Errege egunera arte, makina bat ekitaldi izango dira.*

EGUBERRI giroa nagusitu da Hernanin. Santo Tomas egunerako ere pixka bat falta da, baina gaur bertan izango da herriko aurreneko txistorrak probatzeko aukera, San Joan Konpartsaren eskutik. Eta bihar ere gehiagorako aukera izango da Zikuñagan eta Florida-Etxeberrin. Eskoletan, Goiz Eguzkin eta Lizeaga auzoan, aurrerago hasiko dira txistorra prejitzen.

Baina ordura arte ere, beste hamaika ekitaldi izango dira: kontzertu eta errondak, azokak eta apaingarriak jartzeko ekitaldiak izango dira nagusi.

**Bi azoka, gaurtik urte bukaerara**

Negu giroarekin bat egingo duen azoka izango da, gaur egingo den Bigarren Eskuko Azoka. Izan ere, elurretako materiala eta jantziak saldu eta erosteko aukera izango da.

Gabon hauetan egingo den bigarren azoka, berriz, urte zahar egunean egingo da: liburu eta disken azoka solidarioa izango da hori.



Gabon kanten jaialdia eman zuten atzo elizan, herriko abesbatzek.

**Musika eta Olentzerori etorrera**

Garai honetan falta ezin den beste elementua, berriz, musika da. Atzo bertan eman zuten herriko abesbatzek gabonetako aurreneko kontzertua, eta gehiago izango dira datozen egunetan: bihar, Txistulari Bandak emango du kontzertua, eta abenduaren 23an, elkarrekin ariko dira Musika Banda eta Ozenki abesbatza.

Baina kantu gehiago ere izango da, bereziki, Olentzero eta Mari Domingiri

eskainiak. Hamaika erronda aterako dira kaleak Gabon kantuekin alaitzera, Santo Tomas egunean hasi eta Gabon egunera arte: herriko ikastetxeetako eta musika eskolako ikasleak, Kantuz abesbatza, Musika Banda, Bertso Eskolako kideak... Eta Urte Zahar egunean ere ez du hutsik egingo, Ohitura Zaharrak abesbatzak.

Bestalde, Bertsolata ere abian da, eta Olentzerorekin baserriz baseri ibiltzeaz gain, abenduaren 30ean urteroko bertso jaialdia izango da, puntako bertsolariekin.

**Jolaserako tartea**

Kontzertu eta kale buelten ondoren, atse-denerako tartea ere izango da Gabonetan, eta entretenitzeko ekintzak ere izango dira. Gaztetxoentzako *Go!azen* antzerkia izango da hilaren 28an, eta Gaztelekuak ere makina bat ekintza antolatu ditu. Era berean, udaletxean programa bateratua aurkeztuko du datorren astean.

Bitartean, txistorraren indarrak bildu beharko, otordu potoloenak iritsi arte, mazapan eta Errege roskeekin goxatuak! ●

**IMANOL KAMIO musika eskola**  
**DOINU-ZALE**  
 KARABEL ALIZOA, 4 - behea ezherria  
 943 33 12 33

Solfeoa	Biolontxelo	Tronpet
Pianoa		Trikitixa
Akordeola		Kitarra
Panderoa		Abesbatza
Bateria Modernoa		Armonia

943 33 12 33 - 637 85 79 62  
 Gabon goriontsuak opa dizkizuegu.  
 Eguberri On!

**Xarman**  
 Ileapaindegia  
 Estetika Zentroa  
 Eguberri On!!!  
 Data: 1990-01-01 Tel: 943 33 50 01

**urteberri on!!**  
**AKZKEN KILOMETROA**  
 943 24 71 41 Akarregi, 1. Hernani

**BRINTZA**  
 AHOLKUALARITZA - CONSULTORIA  
**Zorionak eta Urte Berri On!**  
 www.brintza.com  
**URBIETA KALEA 15, HERNANI**  
 Tel: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92

**TILIN TOLON MAITE**  
**Urte Berri on!!!**  
 TXORRITA KALEA, 10. HERNANI Tel: 943 55 56 84

**gse**  
**Asesores**  
**Zorionak eta urte berri on!**  
 Gudarien plaza, 13. Hernani  
 Telefonoa: 943 55 02 54  
 Faxa: 943 33 58 01  
 gse@gseasesores.net

**Garayar autobusak**  
 Sorgintxela auzoa, Hernani (Gizurkoad)  
 Tel: 943 55 66 58 - Fax: 943 33 12 58  
 mgarayar@autobusgarayar.es

**Zerbitzu diskrezionalak (Eskolarrak)**  
**Autobus zerbitzuak Linea erregularrak**  
**Eguberri on!**  
 •Hernani •Donostia  
 •Aiete •Umiera •Andoain



## Bertsolata ere, jarri da martxan

Ostegunean eman zitzaion hasiera, eskolarteko bertso-paper lehiaketako sari banaketarekin. Urtea bukatu arte, gehiago.

HUTSIK egin gabe, eta biharko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean lanik falta ez duten arren, Hernaniko Bertso Eskolako kideek martxan jarri dute aurten ere Gabonetako Bertsolata.

Ostegunean eman zioten hasiera, eskolarteko bertso-paper lehiaketako sari banaketarekin. Agin Laburuk eta Beñat Mujikak banatu zizkieten sariak, Uru-

mea, Elizatxo, Txirrita, Inmakulada eta Langile ikastetxeetako ikasleei. Aurten, sari nagusia Txirritako Lore Arretzek irabazi du; ikaskideekin aukeratzen duen bertsolariaren bisita jasoko du, sari.

Datozen egunetan, ekitaldi gehiago izango dira: Olentzerorekin erronda, bertso jaialdia eta urte zaharretako erronda. ●



Bertso-paper lehiaketako sariak banatu ziren ostegunean.

### EGITARUA

#### Gaur

**10:00** Jaiotza eta Olentzeroa jarriko ditu Iturritxo elkarteak Atarrabiyo parkean.

**Goizean zehar** jaiotza eta Gabonetako apaingarriak jarriko dira Zikuñagan.

**10:30-13:30** Bigarren Eskuko Azoka berezia: elurretako arropa eta materiala saldu eta erosteko aukera, Urbieta kalean edo Atsegindegian.

**11:00-14:30** Santo Tomas azoka Plaza Berrin, San Joan Konpartsak antolatuta. Pintxoak, taloak eta bokadilloak.

**12:00** Ttarla dantza taldearen kalejira.

**18:30-20:30** Erromeria, Patxi eta Konpainia taldearekin, Plaza Berrin. (Eguraldi txarreakin, Atsegindegian).

#### Bihar

**Goizean zehar** Santo Tomas Azoka Florida-Etxeberrin. Auzokide Elkarteak.

**11:00** Santo Tomas Azoka Zikuñagan. Zikuñagako Ama auzo elkarteak.

**13:00** Txistulari Bandaren kontzertua, gitarra-joleekin, Milagrosan.

**16:00** Otsuenea sagardotegian,

Osiñagako Mus Txapelketa.

#### Abenduak 21

**11:00** Udazkeneko txapelketetako sari banaketa eta txistorra jatea Goiz Eguzkin.

**12:00** Olentzero eta Mari Domingirekin kalejira, Meabe, Urbieta kalea eta Marielutsen barrena, Langile ikastolako haur hezkuntzakoek.

**Goizean zehar** Olentzero eta Mari Domingiren bila Elutxetara joango dira Langile ikastolako LH1ekoak. LH2koek harrera egingo diete Laubidietan.

**Eguerdiari** Txistorra jana Laubidietan.

**17:30** Txistorra&Halal, Gaztelekuan.

#### Abenduak 22

**17:00** 'Hernani' Musika Eskola Publikoko ikasleen Gabonetako kalejira, Plazatik.

#### Abenduak 23

**Goizean zehar** Santo Tomas Azoka Lizeaga auzoan. Gibelalde auzo elkarteak.

**20:00** Ozenki abesbatza eta Hernaniko Musika Bandaren kontzertua. San Joan Bataiatzailea elizan.

#### Abenduak 24

**11:00** Gabon erronda Olentzerorekin, Txantxillatik abiatuta. Langile ikastolako LH3-4-5-6 taldeak.

**12:00** Gabon erronda Olentzerorekin; Elizatxo eta Portu auzoetan barrena aurrena, eta Kaxkoan gero. Elizatxo ikastola.

**12:00** Gabon erronda Olentzerorekin. Urumea ikastola. Elkartzeko ordua, 10:15etan ikastolan. Bukatzean, Sandiusterriko aitona-amonei bisita.

**12:00** Gabon erronda, Milagrosatik. Kantuz abesbatza.

**15:30** Gabon erronda Olentzerorekin, Biteritik abiatuta. Bertso Eskola.

**18:00** Olentzeroren etorrera eta kalejira, Ttarla dantza taldearekin, Plazatik.

**20:00** Gabon gaueko erronda, Plazatik abiatuta. Hernaniko Musika Banda.

#### Abenduak 26

**17:00-20:00** Urte berrirako desioen pareta, Gaztelekuan.

#### Abenduak 27

**17:00** Hi! Selfie txapelketa Hernanin barrena (Plaza Berrin edo udaletxeko arkupeetan, eguraldiaren arabera). Gaztelekua.

#### Abenduak 28

**16:00 eta 18:00** Golazten haur-gaztetxo antzerkia Biterin. Sarrerak salgai abenduaren 18tik aurrera.

**11:00-14:00** Sukaldaritzak, Gaztelekuan.

#### Abenduak 29

**17:00-20:00** Urte bukaerako festa. Gaztelekua eta Kale Hezitzaileak. 19:00etan kanpaikadak.

#### Abenduak 30

**18:30** Bertso jaialdia, Biterin. Eli Pagola, Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Amets Arzallus, Unai Agirre eta Agin Laburu.

#### Abenduak 31

**10:30-14:00** Liburu eta disken azoka solidarioa, Plaza Berrin.

**17:30** Urte Zahar erronda. Ohitura Zahar abesbatza. Arkupetatik abiatuta.

#### Urtarrilak 2

**17:00-20:00** Mahai-jolasak, Gaztelekuan.

#### Urtarrilak 3

**16:00-20:00** Pio Barojara eskalatzera. Gaztelekua.

#### Urtarrilak 4

**17:00-20:00** Musika, Gaztelekuan.

**HERNANIN EGITEN DIREN PALA ETA PALETAK**

Gipuzkoako federakuntzak homologaturiko palak: infantil eta alebinak, paleta goma, paleta argentina, pala argentina

Pala eta paleta guztietan izozta edo azuagarri bat grabatu daiteke

T. 699 729 205  
info@barrenepatak.com

**Mariharmen**  
leapaindegia

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Urbieta kalea, 7 - 1 B - 20120 Hernani  
943 55 20 81  
mik.leapaindegia@hotmail.com

**Iparrao**  
sukaldeak

Ibarluze poligonoa, 7. Hernani  
Tel. 943 55 67 60  
www.iparrasukaldeak.com

ZORIONAK ETA URTE BERRI ONI

BERTAN EGINDAKO ALTZARIAK

SUKALDEEN DISEINUA ARMAIRU ENPOTRATUAK ETXETRESMAK

**mikel armendariz**  
proiektu eta instalazio elektrikoak

Zorionak eta urte berri on!

Tel. 649 846 422 - 20.120 HERNANI

**HATOR**  
AHOLKULARITZA

Gabon zoriontsuak eta urte berri oparoa opa dizkizuegu!

Andrekale, 60. Hernani  
Tel: 943 55 43 12  
www.hatoraholkularitza.net

**Biesku**  
Denda

Gabon jai zoriontsuak opa nahi dizkizuegu!

Izpizua kalea, 19. Hernani Tlf. 943 04 98 48 Mug. 620 30 47 91  
bieskudenda@gmail.com / www.facebook.com/bieskuDenda



Gabonak Astigarragan

# Zakua bete ekintza dator Olentzero!



Abenduaren 24an jaitsiko dira Astigarragara, Olentzero eta Maridomingi.

Makina bat aukera izango dituzte haur eta gaztetxoek, aurten ere, Gabonetako oporraldiaz gozatzeko. San Tomas azokarekin hasiko da ekintza sorta gaur, eta Gabon kanta eta doinuen emanaldiarekin segiko du bihar.

KIROLAK eta jolasak hartuko dute protagonismoa, aurten ere, Gabonetako oporraldian. Denetik antolatu dute, haur eta gaztetxoek gozatu ederra hartu dezaten: datorren ostiralean hasi eta urtarrilaren 5era arte, izango dute ekintzarik.

Hain justu, ostiraletik aurrera, Neguko Kirol Astea antolatu dute, kiroldegian. Eta horretan, kirol ezberdinak probatzeko aukera izango dute, nahi duten guztiek, haur, gazte zein heldu. Ostiral arratsaldean bertan, judo, zunba eta jump fit egiteko aukera izango dute haurrek; eta helduak, berriz, jump, aeropilates, ziklo indoor eta hiit egiten jarriko dituzte.

Eta hortik aurrera, Inuxente Krosa izango da larunbatean, eta eskubaloia, saskibaloia eta futbola probatzeko ate irekiak, hurrengo astean. Pilota Festarekin emango diote amaiera, aste intentsoari.

Baina kirolerako bakarrik ez, jolaserako tartea ere izango da. Abenduaren 26tik 29ra, eta urtarrilaren 2 eta 4an, jolas aretoa zabalik egongo da kultur etxean, mota guztietako makina, joku eta jolasekin. Eta kiroldegian, Jolas Txiki ere egingo dute, joku ezberdinekin.

**Olentzero eta Maridomingi, Santiomenditik behera**

Baina kirol eta jolasen aurretik, San Tomas azoka jarriko dute gaur, Foru Plazan, 10:30etatik 13:30etara bitarte.

Bihar, berriz, Gabon kanta eta doinuen emanaldia eskainiko dute musika eskolako ikasleek eta Aiztondo abesbatzak, 11:30etan Andre Mari elizan.

Eta abenduaren 24an, Olentzero eta Maridomingiren zain egongo dira astigarrak. Eguerdian iritsiko dira, Santiomenditik behera, gutunak jaso eta goxoki eta opariak banatzeko. ●

**GABONAK ASTIGARRAGAN**

**Gaur, larunbata**

**10:30-13:30**, San Tomas azoka, Foru Plazan: ikasleek egindako gozoak, nazioarteko postreen dastaketa, garai bateko argazki, eskulan zein baserriar jantzien erakusketak, txistularien kalejira, kantu jaialdia, ikasleen taberna... 13:30etan, txeritxoaren eta saskien zozketa.

**Bihar, igandea**

**11:30**, Gabon kanta eta doinuen emanaldia, Andre Mari elizan. Norberto Almandoz musika eskola eta Aiztondo abesbatza.

**Etzi, astelehena**

**19:00**, Biolin, piano eta zeharkako txirula ikasleen emanaldia, Musika Eskolako aretoan.

**Neguko Kirol Astea, kiroldegian**

**Abenduak 22**, Haurren judo, zunba eta jump fit erakustaldiak, 16:30etatik 18:00etara. Eta helduentzako jump, aeropilates, ziklo indoor eta hiit saioa, 18:00etatik aurrera. Izenematea abenduaren 22ra arte, kiroldegian.

**Abenduak 23**, Inuxente Krosa, 4 urtetik gorakoenentzat. Izenematea 22ra arte, kiroldegian.

**Abenduak 26**, Eskubaloia probatzeko ate irekiak.  
**Abenduak 28**, Saskibaloia probatzeko ate irekiak.  
**Abenduak 29**, Futbola probatzeko ate irekiak.  
**Abenduak 30**, Pilota Festa, goiz eta arratsalde, Txomiñene frontoian.

**Abenduak 24, igandea**

**12:00**, Olentzero eta Mari Domingiren iritsiera. Santiomendiko baserrietan ibili ondoren, Santio zeharbidetik behera jaitsi eta herriko kaleetan zehar ibiliko dira.

**Jolas aretoa**

**Abenduak 26-29 eta urtarrilak 2 eta 4**, kultur etxean. 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30etara. Sarrera irekia eta doakoa.

**Jolas Txiki**

**Abenduak 26-29 eta urtarrilak 2-5**, kiroldegian: joku didaktikoak, lankidetzakoak eta taldekoak. 2-5 urteko haurrentzat, 10:00etatik 13:00etara. Atzo bukatu zen izena emateko epea.

**Futbol Kanpusa**

**Abenduak 26-29**, Zarkumendegin. 7-11 urtekoentzat, 10:00etatik 13:00etara. Atzo bukatu zen izena emateko epea.

**Gabon zoriotsuak eta urte berri on!**

Nagusia 32, ASTIGARRAGA 943 55 49 89 - [ikaizataberna@gmail.com](mailto:ikaizataberna@gmail.com)

**EPELA NATUR DENDA**

2018 zoriotsuak opa dizuegu!

Nagusia, 9 Astigarraga 943 33 11 47

**Rafa Garaikoetxea**  
Mediku-Odontologoa  
Kolegiatu Zenbakia 415

**Clínica Dental ASTIGARRAGA**  
Hortz Klinika

**JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!**

Peloturi 17, beheko Astigarraga. 943 33 00 89 / 688 66 68 17



## Gabonak Aranon eta Goizuetan



Abenduaren 24ko goizean aterako dira haur eta gurasoak, Olentzerorekin. Argazkia: Felix Loiarte.

# Jaialditik tailerrera, Olentzeroren etorrera

Abenduaren 24ko irteerez gain, hainbat ekintza izanen dituzte Goizuetan eta Aranon: 'Artantxuriketan' emanaldia, Eguberritako tailerrak...

OSTIRALEAN, klaseak bukatze-arekin batera, helduko diote Gabonetako ekintza sortari, Aranon eta Goizuetan. Eta azkeneko klase egun horretan, urtero bezala, jaialdia egingen dute Goizuetako Xalto Eskolan.

Goizeko 09:30ak aldera izanen dute bisitan Maridomingi, txikiak, eta beraiekin egonen da tarte batez. Gero, maila guztietako ikasleak elkartuko dira, abesti-jaialdia ospatzeko. Bina kanta abestuko ditu talde bakoitzak, eta 11:00etatik 13:00etara izanen da jaialdia.

'Artantxuriketan' 23an eta kantuan 24an, Aranon Hurrengo bi egunetan izanen dituzte zita bereziak, Aranon. Hilaren 23an, Artantxuriketan emanaldia eskainiko dute, Maria Jesus Zugarramurdik eta Arantxa, Ainhoa eta Maider Ansa

ahizpek. Maisuenean izanen da, arratsaldeko 18:00etan hasita.

Eta aurretik, akaso sorpresaren bat ere prestatuko dute, herriko haur eta gaztetxoek...

Hurrengo egunean, abenduaren 24an, berriz, urteroko zita jarri dute: kalera aterako dira haur eta heldu, kantari buelta egitera, baserriarrez jantzita.

24ko arratsaldean iritsiko da Olentzero, Goizuetara Goizuetan ere aterako dira kantari, etxez etxe, hilaren 24an. Olentzero hartuta, Eskolako guraso eta haurrek egingen irteera goizean, 11:00ak aldera abiatuta, DBHkoentzako dirua biltzeko. Hamaiketako ere egingen dute elkarrekin.

Eta arratsaldean aterako da, presoen aldeko Olentzeroa. Ikastolatik abiatuko dira, 15:30-16:00 aldera, eta arratsalde osoan

zehar ibiliko dira kantari.

Eta kantuan diren bitartean, iritsiko da Olentzero Goizuetara. Arratsaldeko 18:30etan sartuko da herrian, eta Plazan edo frontoian jasoko ditu haurren gutunak, baita goxokiak banatu ere.

Eguberritako tailerretan, izenematea asteazkenara arte Eta urtea bukatzeko, Eguberritako tailerrak izanen dituzte, Arano eta Goizuetako haurrek. Abenduaren 26 eta 27an Goizuetan egingen dituzte, eta 28an Aranoko Maisuenean. Hiruak izanen dira goizeko 10:00etatik 13:00etara, eta datorren asteazkenara arte dago izena emateko epea: Xalto Eskolan jaso duten orria bete eta diruarekin batera Eskolan utzi; eta aranoarrek, Ainhoa Ansarekin harremanetan jarrita ere egin dezakete. Egun bakoitzeko, 5 euro dira. ●

## Gabonak Ereñotzun

# Txistorrada eta Gabon kanta ugari, haurrek emana auzoari

Aurten ere, Txirrita eskolak eta auzoko txikiak emango diete bizia Gabonei, Ereñotzun: Santo Tomas ostegunean, eta kantari igandean.

GABONETAKO egun bereziei, auzoko txikiak emango diete bizitasuna, Ereñotzun. Izan ere, beste urte batez, bi zita nagusi jarri dituzte, auzotar guztiei eskainiko dizkietenak.

Santo Tomas eguneko ospakizuna izango da aurrenekoa, ostegun goizean, abenduaren 21ean bertan. Txistorrada egingo dute Txirrita eskolako ikasle eta irakasleek, eta auzo guztiari luzatu diote gonbitea, txistor goxoa jatera gerturatzeko. Eta Gabon kanturik ere ez da faltako bertan! Modu horretan, giro ederrean egingo diote ongietorria, Gabonei.

Santo Tomas egunez, txistorrada egingo du Txirrita eskolak, auzotar guztientzat.

Eta Gabon kantez, nola ez, abenduaren 24an izango dute segida. Katiluzar guraso elkarrekin antolatuta, kantuan aterako dira eskolako haurrak eta gurasoak, arratsaldean. Etxez etxe joango dira, trikitixa eta panderoen erritmora, Gabonetako doinuak eramatera. ●



Gabonetako lehengo ohiturak

# Kontu zaharra berri, orain ere Eguberri

Ohiturak aldatu egiten direla, baina ez denak. Gabonak ospatzen segitzen da Urumea bailaran, eta ohitura batzuk ez dira ez, askorik aldatu!

ZAHARRAK berri esaten da sarri. Batzuetan tonu tristearekin, nobedade-ren bat espero genuelako, eta besteetan, pozik, seinale izan baitaiteke, gauza onek bere horretan segitzen dutena.

Gabonak urtero ospatzen direla-eta, asko aldatu ote diren pentsatzen jarrita,

hainbat oroitzapen ekarri zituzten gogora [www.ahotsak.eus](http://www.ahotsak.eus) proiekturako, Astigarragako Sabina Arruabarrena Oiarzabalek, eta Hernaniko Juani Lujanbio Etxabek eta Juanita Izagirre Loiarrek; azken hau, orain zazpi urte zendua. Gauza batzuk dezente aldatu direla kontatzen

dute: menuak, opariak eta ospakizunaren bueltako bilkurak, adibidez. Baina, beste asko, beti bezala ospatzen segitzen dira Eguberrietan; kantuan, esaterako, ateratzen ziren etxez etxe eta baserriz baserri, eta orduko doinu eta letra asko iritsi dira gaur egunera ere! ●

Sabina Arruabarrena Oiarzabal (Astigarraga, 1928)

## «Gu ere ibiltzen ginen Gabonetan, baserritar jantzi eta xextoarekin kantuan»

Astigarragako plazan jaioa da Sabina Arruabarrena Oiarzabal, 1928an; Juananen hain zuzen, orduan Markosene bazen ere. Orduko Gabonetako hainbat kontu kontatu eta kantatzen ditu, 'www.ahotsak.eus' proiektuan bildu direnak.



Sabina Arruabarrena Oiarzabal, Astigarragako plazan, etxe aurrean.

GABONETAKO hainbat ohitura ez dira askorik aldatu, Sabina Arruabarrena Oiarzabal astigarrak kontatzen duenaren arabera.

Gerra Zibilean gerta zitekeenaren beldur, amak Markinara bidali zuen, ahizparekin batean. Baina Astigarragan jaiotakoa da; plazako Markosene etxean, hain zuzen ere (egun, Juanane deitzen zaio, ama Juana zuela-eta). Eta bizi ere, Astigarragan bizi izan da ezkondu zenetik. Beste hainbat konturen artean, garai bateko Gabonak oroitzen ditu Sabinak [www.ahotsa.eus](http://www.ahotsa.eus) webgunerako grabatutako bideoan, eta ez dirudi ohiturak asko aldatu direnik: kantuan, behintzat, aritzen ziren-eta.

**Mezetara, gauerdian**

Besteak beste, oilar meza edo gauerdiko meza, Misa del gallo oroitzen du. «24an izaten zen, gaueko 12:00etan. Erdi mozkorrek joaten ziren batzuk! Jesus! Meza hartan, meza eman, eta niño jesusi muxu eman, eta etxera. Hori batzuk, eta besteak... zurrutera!».

**Kantuan eta eskean, «goiz asko aterata, etxetikan»**

Bestalde, kantuan eta eskean ere ibiltzen zirela kontatzen du. «Gu ere ibiltzen ginen San Nikolasetan eta Erregeetan,

eta Gabonetan ere bai, baserritar jantzi eta xextoarekin kantuan. Orduan sagardotegiak-eta, izaten ziren, eta kantatu eta gero denak biltzen genituenean eta partitzean, kontent! Batzuk intxaur batzuk edo... Besteek gaztainak edo... Baina dirua ematen zigutenean, Jesus, Maria eta Jose! Bai bai, ibiltzen ginen herriko etxeetan eta baserriz baserri ere bai, goiz asko aterata, etxetikan». Eta baita kantuak ondo gogoratu ere, oraindik!

**Ordainetan, karakolak eta aza-olioak!**

Ondo kantatu ondoren, ordainik ere ez zuten falta, noski. Otorduan nabaritzen zen Gabonak zirela, gauza askorik ez bazen ere, berezia izaten baitzen, behinik behin.

«Gabonetan izaten genun guk, karakola. Karakolik ez baldin bazegoen, ez zen Gabonik. Eta gero, aza-olioak aurrena, eta gero, xerra bat, ekartzen baldin bazuten, patata prejituekin, eta konpota. Ez zegoen gehiago!».

**«Neretzako muñeka bat ez det ezagutu!»**

Baina izaten zen gehixeago, bai, oraindik ere zer ospatua geratzen baitzen, Gabon gauaren ondoren ere. Urte berriaren etorrera, berriro biltzeko aitzakia izaten zen. «Orain, afaldu eta denak kanpora; batzuk hara eta besteak bailera eta... Ez, ez. Orduan, ezta pentsatu ere! Afaldu eta ohera, hurrengo egunera arte! Igoal kartetan ibiltzen ginen, batzuk erdi lotan, eta aspertzen ginenean, ohera! Ez zegoen besterik!».

**Muñeka, belar onduarekin sikiera...**

Oraindik ere besterik bazen, ordea. Opariak! «Nere etxera Erregiak etortzen ziren». Eta baita detaileren bat utzi ere: «Naranja bat eta ilargiaren erdia dagoe-

**SAN NIKOLAS TXIKIA**

San Nikolas txikiya gure ganbaran haziya, gure ganbaran zer dago, andre Juana Maria.

Angelitos somos, del cielo bajamos, una limosnita, ¡por amor de Dios! ¡por amor de Dios!

Ate txokuan oilo bi, batak bestia dirudi. Etxe hontako etxeoandriak Ama Birjiña dirudi. Ama Birjiña! Ama Birjiña! Zu zera zeruko erregiña!

**HAU DA GABAREN ZORAGARRIA**

Josetxo ekar zazu auzotik esnia, hau honi emateko munduko legia. Hau da gabaren zoragarria, Jesus jaio da, Belenen! Etxe honetan sartu ote da, bila gabiltza beraren!

Argazkia: www.ahaztuenorimena.com

nean bezalako karameluak. Besterik ez! Ezer ez!».

Eta ordutik buruan dauka bueltaka, besterik ere jaso zezakeela... «Muñeka bat. Nere ahizpak gainera, zekiela josten! Belar onduarekin burua egin eta gero trapu batekin hankak eta... Neretzako muñeka bat ez dut ezagutu! Orain pentsatu egiten dut. Zer kostatzen zitzaion ahizpari!». ●



Juani Lujanbio Etxabe (Hernani, 1927)

## «Erregietan gure amak jartzen zigun ikatza»

Altzako Akular baserrira ezkondu zen Juani Lujanbio Etxabe, baina Hernaniko Ibarluze baserrian jaioa da. Hain zuzen garai hartan Gabonak nola ospatzen zituzten jasota dauka 'www.ahotsak.eus' proiektuak. Oiloa prestatzen omen zuen amonak «ederki asko!».

UMETAN Gabonak nola pasatzen zituen ederki asko gogoratzen du Ibarluze baserriko Juani Lujanbio Etxabek. Dezente aldatu dira gauzak, ordutik hona!

### Oiloa, etxekoa

«Orduan, jeneralean destakatua izaten zen oiloa», kontatzen du Juanik, [www.ahotsak.eus](http://www.ahotsak.eus) proiekturako grabatutako bideoan. «Gisatua gure amonak ederki asko jartzen zuen! Jesus! Eta gero, oilasko errea ere bai. Etxekoak denak! Eta gero, flana egiten zuen, eta gu kontentua! Jesus! Eta gero, arrozkonletxe!».

### Ikatza jasota ere, pozik

Garai hartako Gabonetako menuaren eta oraingoaren artean badago diferentziarik, baina are gehiago, opariei begiratzen badiegu... «Erregietan gure amak jartzen zigun ikatza. Eta gogoratzen zen, guri ikatza jartzeko!», dio Juanik. «Gaizki portatzeagatik ez, ohitura zen. Berak esango zuen, *hau debalde det eta...* Orduan ez zegoen dirurik! Baina guri batere inportik ez. Gu feliz! Ni nere martxan amonarekin, asko maite nuen amona, ama... Mutilekin borrokan ibili eta... Erregaluak eta, ba!».

Argazkia: [www.ahotsak.eus](http://www.ahotsak.eus)



Juani Lujanbio Etxabe, kontu-kontari, Gabonen inguruan.

Juanita Izagirre Loiarde (Hernani, 1921)

## «Erregien erregalia izaten zen maxapana»

Gozorik ez zen falta izan Aparrain baserrian, Gabonetan, behinik behin. Horrela kontatu zuen bertako Juanita Izagirre Loiardek, 'www.ahotsak.eus'-erako, duela 7 urte hil baino lehen. «Kajan izaten da, sugian formakoa, maxapana». Horixe jasotzen omen zuten opari, eta besterik ere bai, eskolan...

MUÑEKARIK ez, bestelako opariak izaten zituzten Hernaniko Aparrain baserrian, bertako Juanita Izagirre Loiarteren arabera. Gehiago jotzen zuten gozoetara, eta egun batzuetan ixilik gorde behar izaten zuten, gainera, sugea ikusi zutela!

### «Sugiaren formako maxapana»

«Erregietan bat izaten genun guk, erre-galo bat», kontatzen zuen Juanitak. «Kajan izaten da, sugia bezela, maxapana. Erregiak baino lehenago guk ikusia goialdukitzen genuen etxean, eta esanez

gero ez zirela Erregiak, ez ziguten emango gehiago eta, ixil asko egoten ginen! Gure Erregien erregalia hori izaten zen, maxapana, kaja bat, maxapana barrenen, sugian formako maxapana».

### Maistrak ere, erregalao

Ez zen hori izaten, ordea, jasotzen zuten opari bakarra. «Muñekarik ez genuen guk izan», zioen, baina bai bestelakorik: «Maistrak ematen zizkigun eskolan, es-tutxe edo, gauza horiek. Bakazioak izaten zirenean, aurretik jasotzen genituen».

Argazkia: [www.ahotsak.eus](http://www.ahotsak.eus)



Juanita Izagirre Loiarde ez zuen oparirik falta izan, Gabonetan!





Nola apaindu dezakegu etxea?

# Betiko pinua edo eskulan originalak?

Gabonak iristearekin batera, etxea apaintzeko ohitura dute askok. Horretarako, klasikoa da pinua jarri eta bolatxo, girnaldaz eta argiz janztea. Balkoitik Olentzero, Bizarzuri edota Errege Magoak zintzilik jartzen dituenik ere bada... Beste zenbaitek, aldiz, originaltasuna bilatzen dute apaingarrietan, eta eskuz egiten dituzte. Makina bat aukera aurkitu daitezke interneten.

ARGITASUN eta kolore berezia hartzen dute herrietako kaleek, Gabonak iristen direnean. Forma bereziak eta kolore guztietako argiak dauzkaten apaingarriak zintzilikatzen dituzte, eraikin batetik bestera, festak girotzeko. Eta komertzioek ere, bereziki prestatzen dituzte eska-parateak, Gabonetako apaingarriekin.

Baina kaleetan bakarrik ez, etxeetan ere ohikoak dira apaingarriak, mota guztietakoak gainera. Klasikoak erabiltzen dituzte batzuek: egongelako txoko ikusgarrienean pinua jarri (naturala edo artifiziala), eta bolatxo, girnaldaz eta argiz janzten dute. Etxeko beste hainbat tokitan zintzilikatzeko ere balio izaten dute bolatxo, girnaldaz eta argi horiek.

Eta zintzilikatzen hasita, Olentzero, Bizarzuri edota Errege Magoak balkoitik zintzilik jartzen dituenik ere bada...

Zientoka apaingarri eskuz egiteko ideiak, interneten

Beste askok, ordea, originaltasuna bilatzen dute, eta horretarako, apaingarriak etxean eta eskuz egitea izaten da ohikoa. Inguruan galdetuta, ziur badela inor horrelakorik egin duenik, eta ideia politen bat emango digunik.

Baina internetek ere, aukera ederra

emango digu horretarako. Bilaketa azkar batekin, zientoka ideia lortuko ditugu, mota guztietako apaingarriak egiteko, gauza arraroenekin: kartoia, papera... erabilia egin ahal izango ditugu zenbait, baina topatuko ditugu garagardo zein sardina latekin, botilekin, kortxoekin... egindakoak ere. Eta polit askoak dira batzuk! Begiratu bat eman eta harrutuko gara ikusitakoarekin!

**Hernaniko Udal Liburutegiak zuhaitz berezia, lehiaketa eta guzti!**

Idea originalen bidetik jo du, adibidez, Hernaniko Udal Liburutegiak. Gabonetako zuhaitz berezia jarri du, Hernaniko argazkiekin osatutakoa. Argazki zaharrak dira gehienak, herriko txokoak eta pertsonaiak erretratzen dituztenak.

Baina zuhaitz originalari, joku gehiago ere eman nahi izan diote! Argazki horiekin, lehiaketa antolatu dute. Zazpi galdera prestatu dituzte, Hernaniri buruzkoak, eta guztiak asmatzen dituzten artean, lau sari zozketatuko dituzte: Balantxa, Elkar, Gaueko eta Leokadistin erabiltzeko 40 euroko bono bana. «Zatoz liburutegira zuhaitza ikustera, eta parte hartu!», animatu dituzte herritarrak. Etxea apaintzeko ideia bat ere, hortxe! ●



Gabonetako zuhaitz berezia jarri dute, Hernaniko Udal Liburutegian.

EMAKUME, GIZON ETA HALIRRAK  
CALZADOS OINETAKIAK  
**IRIGOYEN**  
ELKANO, 4  
TEL. 943 55 08 31  
**HERNANI**  
**EGUBERRI ON!!**

**Eukene**  
Jantzidenda  
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!  
Nafar kalea, 14 - Tel.: 943 332 199

**Ilargi**  
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON  
kardaberaz, 7 943 553 465

**Mahuka**  
Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!  
ANDRE KALEA, 28 BEHEA  
HERNANI  
943 333 639

**UBERDI**  
mertzeria  
lentzeria  
hariak  
artileak  
Playtex - Avaf - Dim  
Emakume eta gizonentzako  
uzkipo arropa eta pijamak  
**EGUBERRI ON!**  
Kale Nagusia, 51 - 943 551 322

**URRATS OINETAKOAK**  
Iturriaga, 3 • Tel. 943 55 65 64  
20120 HERNANI

**JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!**

Din dan don, Din dan don,  
guztiori Mila Zorion,  
Izan dezagun Eguberri  
eta Urte Berri On!

ARRATSALDEZ IREKIKO DUGU LARUNBAT HAUETAN:  
**ABENDUAK 16 ETA 23an**



## Iturritxo elkarteak Jaiotza

# «Jesus haurtxoa ere haunditu zaigu!»

Latsunbeko Atarrabiyo parkean jartzen du jaiotza Iturritxo elkarteak; aurtengoa 22garrena izango da! Gaur, 10:00etan jarri dute zita, montajerako.

DOZENA inguru piezarekin jarri zuten aurreneko jaiotza, Atarrabiyo parkean, duela 22 urte, Iturritxo auzo elkarteko kideek, eta dagoeneko, ia 100 pieza badauzka.

Pieza berri asko gehitu dituzte pixkanaka, urtero, eta zaharrak eraberritu ere bai. Baina 15 bat figura «primitibo» mantentzen dituztela diote.

Goizeko 09:00etan joango dira piezak furgonetan kargatzera, eta 10:00etan jarri dute zita Atarrabiyo parkean, montajerako. «10-15 lagun biltzen gara normalean, baina gehiago behar da. Gero luntxa izango da!», azaldu dute, animatzeko, Tomas, Lurdes, Anjel, Txelo eta Iñakik.

### Umeekin egindako proiektua

«Parkean zerbait egiteko ideia izan genuen», diote, jaiotzaren sorreraz galdetuz. «Umeekin zerbait egin nahi genuen, eta horrela, paperean patrioiak marraztu genituen, eta gero, brikolaje enpresa batean egur aglomeratuzko piezak egin, eta berriro ere denon artean



Iturritxo elkarteko kideek dei egin dute, gaur jaiotza jartzen laguntzeko.

margotu genituen: Errege Magoak, gameluak, oiloak...».

Horieta batusk dagoeneko kendu egin behar izan dituzte. «Euria, elurra... denetik izan dugu, eta nahikoa eutsi diote!». Baina gaur egun, 85-100 pieza dauzkan jaiotza jartzen dute. «Berritzen hasi ginen. Auzo elkarteko kide baten anaia eta iloba ikaragarri inplikatu ziren, eta oso esku ona eta ideia zoragarriak, oso originalak dauzkate. Horrela, aurre-

neko jaiotzaren aurrean Olentzero jarri genuen, eta baserria, oiloak, kaiolak arboletatik zintzilik, laborantza tresnak... Urtero berritzen eta piezak gehitzen aritu gara. Baina oraindik 15 bat figura primitibo badauzkagu!».

### Herriko bakarrenetakoa

Guztia ilusioarekin egiten dutela diote, Iturritxo elkarteko kideek. «Pentsa, 22 urte dira jaiotza jartzen dugula, eta orain hiru

urte haunditu egin genuen! Jesus haurtxoa ere haunditu zaigu!», egiten dute broma. Noski, errelebo eske ere ari baitira... «Pena da auzoko bizilagun gehiago ez inplikatzeko. Oraingoan, moldatzen gara, baina jendea behar da proiektuarekin jarraitu ahal izateko. Herrian jartzen den Gabonetako jaiotza bakarrenetakoa da!».

Horregatik, berriro ere egiten dute deialdia, gaur montajearen lagundu eta emaitza ikusteko. ●

**RIOJA TABERNA**  
**APARTEKO GIROA**  
**2017. urtea ere pasa zaigu.**  
**Urte berri on guztioi!**  
 Kale Nagusia, 6

**Euskal Pizza**  
 943 33 33 73  
 Larramendi, 3. Hernani  
**Festa zoriontsuak eta 2018 urte borobila opa dizkizuegu!**  
 f Euskal Pizza Hernani

**AITAN-ETXE TABERNA**  
**GABON JAI ZORIONTSUAK!**  
 Larramendi, 15  
 943 55 00 46

**AKELENEA**  
 Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegian  
**Zorionak eta urte berri on!**  
 Abenduaren 23tik 2ra oporretan egongo gara  
 Urtamilaen 3an berriro ere zuekin izango gara  
 Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - Tel. 943 333 333

**JOMERIKI**  
 ERRETEGIA  
 MOSAICARTE  
 Kale Nagusia, 7  
 Tel.: 943 55 00 32

**ARROBI estatua**  
**ONDO PASA FESTAK!**  
 Oporrengatik itxita abenduaren 22tik 7ra.  
 Santa Barbara auzoa 87  
 20120 HERNANI  
 Tel 943 337 211  
 mov 629 991 476  
 info@arobiestatua.com  
 www.arobiestatua.com



**Olentzero Urumean**

# «Gustora etortzen naiz; denetik daukazue!»

*Gabon gauerako dena prestatzen nahikoa lan badauka Olentzerok, baina hartu du tarte bat Kronikari erantzuteko. Izan ere, gustora etortzen omen da Urumea bailara aldera.*

PRESTAKETA lanetan buru-belarri dabil Olentzero, eta Kottonio astoari karga nola arindu asmatu nahian! Badirudi, ondo portatu direla, Urumea bailarako herritarrek...

**Sasoiko zaudete oraindik, zu eta Kottonio! Moldatuko al zarete, hainbeste opari ekartzeko?**

Moldatu beharko! Baina ederki zaintzen dugu gure burua, eta seguru, aurtengoan ere, moldatuko garela! Gainera, Urumea bailaran laguntzaileak ere izaten ditugu...

**Laguntzaileak? Nolatan?**

Noski! Aukerarik ez duzue falta hemen. Badira jantzi dendak, oinetako dendak, jostailu dendak, pitxi dendak, bizikleta dendak... Eta herritarrek asko laguntzen digute, opari batzuk prestatzen.

**Baina, opari horiek, orduan, ez al dituzue zuek ekartzen?**

Noski baietz! Baina horregatik eskertzen



Gutunak irakurtzen ari da, dagoeneko, Olentzero.

dugu gutunak garaiz idaztea. Horrela, herritar batzuk lagundu egiten digute guztia aurretik prestatzen, eta gero, opari horiek jasotzen ditugu, behar den tokira eramateko... Baina den-dena ezingo dizuet ba, kontatu!

**Egiten duzuen ibilbidearen pistatxoren bat ez al diguzu emango?**

Eskerrak indarrak biltzeko taberna eta ostaturik ere ez duzuen falta, Urumea

bailara honetan! Horratx, pista ederra! Goizuetatik Aranorako bidea ez da motza, eta zer esanik ez, Aranorako aldapa! Handik Ereñotzura ere, ez dago tarte makala, eta segi gero, Hernani eta Astigarragara!

**Lan gehiegi izaten duzue orduan...**

Bai zera! Gustora etortzen gara Urumea bailarara; denetik daukazue hemen! Gainera, etxeetan ere sorpresa ederrak

jasotzen ditugu lanean ari garen bitartean... Bai jaki goxoak!

**Tarterik izaten al duzue ba, ezer ahoratzeko?**

Olentzerok beti dauka tarteren bat, zer edo zer ahoratzeko! Baina ez nik bakarrik e! Kottoniok ere gustora hartzen ditu, herritarrek etxeetan uzten dizkiguten gutuziak!

**Opariak banatzen aritzen zaretenean, ordea, ez zaituztegu apenas ikusten... Izango al dugu zuekin egoteko paradarik?**

Nola ez ba! Olentzerok eta Kottoniok beti hartzen dute denbora, herritarrekin elkartzeko! Baita Mari Domingik ere! Astigarragara Gabon egunean, eguerdian iritsiko gara, eta Goizuetan eta Aranon barrena arratsaldean ibiliko gara; baita Ereñotzun ere, hurrekin kantari. Gero, Hernanira iritsiko gara, eta kalejiran ibili ondoren, udaletxeko arkupetan egingo diet harrera, azken eskariak egin nahi dizkidanenei.

**Baina, nola egingo duzu hori guztia, egun bakar batean? Eta opariak banatu gauean, gainera!**

Badakizue zein den sekretua? Urumea bailarako haur, gaztetxo, heldu eta zaharren maitasuna! Jasotzen ditugun muxu eta besarkadek ematen digute nahikoa kemena! Beraz, badakizue, txintxoak izan eta... laster arte! ●

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**

**GUNEA**  
GURE ETA ZURE TOPAGUNEA

KITTO Ezklaga, 5. Tf: Tel: 943 33 35 00  
GUNEA Argarain, 2. Tf: 943 33 25 29

**ERRIOGUARDA-ENEA**  
J A T E T X E A

Errioguardako lagunok jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

Nurriga kalea, 10 - Tel:(943) 33 02 91

**OINDI**

taberna

ONDO PASA GABONETAN!

Nagusia, 25  
Tel.: 943 55 75 09

**PINEDA**  
HARATEGIA

**Eguberri on!**

Kardaberaz Kalea, 32 - HERNANI  
943 55 16 43

**BIKAIN**  
OKINDEGI TX GOZOTEGI

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42  
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89

Urte berri on!  
20120 Hernani

**TXILIRITA**  
TABERNA

Eguberri On!

ANTZIOLA, 3  
Tel. 943 55 17 91  
HERNANI

ondo pasa gabonetan!

**ANTZIOLA**  
OKINDEGIA



## KUTXA EKO GUNEA

# Gabonetan ere, hitzetatik ekintzetara!

Etxeko txikienentzako, neguko oporrak hasten dira Gabonekin batera, eta oporrak jolasean pasatzeko aukera anitzak daude edonon. Eta eskaintza horien guztien artean, ikasteko aukera ere eskaini nahi die Kutxa Ekoguneak belaunaldi berriei.

GONBIDAPENA dagoeneko zabaldu dute lau haizeetara; gaztetxoenen Gabonetako oporrak hastera doaz, eta talde bakoitzak bere eskaintza propioa egiten duen honetan, Kutxa Ekoguneak ondo pasatzeko aukera, eta era berean, ekologiarekin zerikusia daukaten gaiak ikasteko eskaintzen diete gaztetxoei. Baina ez hori bakarrik: «Olentzerori ere ongi-otorria eman nahi diogu gure parkea ezagutu dezan», diote beraiek. Eta berekin batera, 3-12 urte bitartekoei dei berezia egiten diete Haur Parkea, eta noski, bere inguruak ezagutzeko. Denerarik aurkituko baitute: abereak, tailerak, musika... aspertzeko unerik ez dute izango, dudarik gabe!

## 'Negulekuak', goizetan

Eskaintza desberdinak egin dituzte aurten ere, eta horien artean, bada bat Gabonetako oporretan zehar, ia egunero, burutuko dena: *Negulekuak*. Udararen egiten den antzera, goiz pasak dira, Ekogunean burutzen direnak. Bertan jarduera ezberdinak antolatuta dituzte adin guztietako gaztetxoentzat, «negua izanik ardatz nagusi, eta Ekoguneko eremua, jolastoki», azaldu dute. Izan ere, aldarrikatu nahi dute neguan bizidun guztiak ez direla lozorroan sartuta geratzen: «batzuk bai, baina Ekogunean inoiz baino esnatuago gaude!».

Besteak beste, 3 eta 11 urte bitartekoek aukera izango dute hainbat ekintza egiteko: «gure abeletzeko animaliek neguan zer egiten duten behatuko dugu, Ipar Haizearen bisita jasoko dugu, neguko olinpiadetan hartuko dugu parte eta, nola ez, hotz handia bada, gure Haur Parkea eskura izango dugu».

Aurten, abenduaren 26tik 29ra eta urtarrilaren 2tik 5era antolatuta dituzte *Negulekuak*, eta oraindik, badago aukera izena emateko: [erreserbak.ekogunea.eus](http://erreserbak.ekogunea.eus).

## Aurreneko tailerra asteburu honetan, tximeletan gertutik ezagutzeko

Dena den, ekintza gehiago ere izango dira, Gabonetan zehar, Kutxa Ekogunean. Horietako bat, asteburu honetan burutuko da: *Ekoguneko beldarra*. Larunbatean eta igandean, bina saio (bata, 12:30etan, eta bestea, 17:30etan) izango dituzte etxeko txikienek, tximeletak nondik jaiotzen diren ezagutzeko. Tailer honetan, «beldar baten transformazioa ikusi (bideoan) eta gero bere gorputza ezagutzeko aukera» izango dute haurrek.

Ez da, ordea, tailer bakarra izango; musikarekin lotura duen beste bat ere egingo dute, aurrerago. Xilofonoa beirazko potoekin egiten ikasiko dute 3 eta 12 urte bitartekoek, hiru egun desberdinetan:



Hamaika eskaintza egin ditu Kutxa Ekoguneak Gabonetarako.

hilaren 23an, 27an eta 30ean. Kasu honetan ere, bi aukera izango dira: goizez, 12:30etan; eta arratsaldez, 17:30etan.

Musika tresnak eraikitzekeo baliabide eta era desberdinak egon daitezkeela irakatsi nahi diete txikienei, munduan eta historian zehar egin den bezala: «Mundua oso anitza denez, lurralde ezberdinetako jendeak kantu eta erritmo ezberdinak egiteko tresnak sortu izan dira, horrela kultura ezberdinei izaera emanaz». Hori dela eta, tailer berezi honetan, «etxean hondakintzat ditugun materialak berrerabiliz sortuko ditugu musika tresnak».

Tailerretan izena aurrez ematea beharrezkoa izango da parte hartu ahal izateko. Horretarako bi bide daude: [haurparkea@ekogunea.eus](mailto:haurparkea@ekogunea.eus) helbidearen bidez, edo [www.ekogunea.eus](http://www.ekogunea.eus) web-orrian

dagoen Erreserba Gunean.

## Jostailuen trukegunea, gaurtik

Gaurtik aurrera, gainera, jostailuen trukegunea jarriko dute Ekogunean, haurrek Gabonetan opari jasotzen dituzten jolasak, berrerabili ahal izateko. Horrela, bizi berria emango diegu objektuei! Gure familiari asko eman ondoren, beste haur batzuei beste horrenbeste eskaini diezaiekete, oraindik ere, altxor txiki horiek.

Horrekin, trukean oinarritutako esperientzia zoragarri bat jasoko dute haurrek, eman eta jasotzea, biak gozagarri direla sentiaraziz, eta gauzak berri izate horri garrantzia kenduz.

## Inuxente egun berezia, abenduaren 28an

Egun berezia izaten da oso abenduaren

28a, Inuxente Eguna, euskaldunontzat, eta gaztetxoentzat are bereziagoa izatea nahi du Ekoguneak. Horregatik, «sorpresaz beteriko eguna» prestatu dute, «bihurrikeriak egiteko gogoia piztu» baitzaie.

## Antzezlanak ere lekua, Gabonak bukatzeko

*Animaliak neguan zer?* ipuin antzeztuarekin emango zaio bukaera Gabonetako egitarau bereziari, urtarrilaren 4an. Horretarako, Ekoguneko iratxoa, Pittiki, izango da Haur Parkean bertaratuei hotzetik babesteko Eki eta beste lagun batzuek duten sekretua kontatzeko. Jakin nahi al duzu? Egun horretan bakarrik kontatuko du, arratsaldeko 16:30etatik 17:00etara. Gainera, familia osoak jakin dezake! ●





**sulabe**  
*Ogiak, berriak*

*Eraman zure maiztura Sulabe ogia* [www.sulabe.com](http://www.sulabe.com)

Irrigonea Okindegia, Hernani  
Tel. 943 331 725

Peña Okindegia, Hernani  
Tel. 943 552 398

Sulabe Kafetegia, Beraun  
Tel. 943 529 237

Sulabe, Hernani  
Tel. 943 554 954

Gabon jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu!

apaindura  
**OIHALA**  
hogar

**Zorionak eta  
Eguberri On!!**

Eikano, 11  
Tel. 943 55 64 87 **HERNANI**

Dobera-Kronikako  
zuzendaritza eta  
lan-taldearen izenean...

**Gabon zoriontsuak  
izan eta  
urte berri on!!!**

dobEra **URUMEAKO  
KRONIKA**

Zorionak eta Urte Berri On!

**DORRONSORO  
OKINDEGIA**

**Obradore nagusia Akarregin**  
Akarregi poligonoa 14A-2  
DENDA, KUTXIAK ETA KAFETEGIA  
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00  
Jareguntan: 7:00-14:30

**Denda herriko kaxkoan**  
Lizeaga kalea 4  
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN  
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00  
Jareguntan: 7:00-14:00

ESPECIALISTAS EN MARISCOS

**MARISCOS  
HERNANI**

**Eguberri on!**  
Javier Justel  
609 674 344

Kale Mozola, 20 - 20120 Hernani  
943 555 156  
mariscos hernani

**Jdarraga**  
HERNANI (Gipuzkoa)

Gabon jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu

**ADARRAGA**  
Konfitegia  
Pasteldegia

Urbietan Etorbidea 7  
943 55 09 10

**Eguberri on!!**

**ITXASPE**

**Arrendegia**  
Antziola 5  
Tel.: 943 330 365  
Mobiila: 653 74 10 97  
20120 Hernani





Bere kasa prestatu du Beñat Gaztelumendik, aurtengo txapelketa.

**Beñat Gaztelumendi:**  
«Sekretua ez da teknikoki ondo egitea, gehiago da gaiak ikusi, ondo kokatu, kideari entzun, erantzun, freskura hori eduki».

aterako zaidan, ez dakit, hori da kontua...». Dena den, bere ustez, «hautagairik ez da falta»; batzuek ez dute halako puntuazio alturik lortu, baina beste era bateko saioetan: «ez dugu elkarrekin kantatu, orain denak elkarren parean jarriko gara eta zerotik hasi. Ikusiko da, egun batetik bestera dena alda daiteke». Bera gogoarekin dago, «lehen egindako irristadaxoak» zuzendu eta beste distira bat atera nahirik.

**Mendiluze, gozatzer**

Gogotsu doa Aitor Mendiluze ere, bere bosgarren finalera: «azken finean, final guztiak ezberdinak dira, baina lehenengo balitz bezala joango naiz, bertsoan egiteko gogoarekin». Eroso ari da bertsoan, baina ez daki ziur hori ona den ala ez.

Durangoko finalaurrekoan bere burua aldarrikatu zuen Mendiluzek, ia Maialenek Irunen beste puntu eskuratuta (740 eta 750, hurrenez hurren, finalaurrekoetako bi puntuaketa altuenak). Gero Iruñean ez zuen halako maila ikusgarria eman; «bietara berdin» joan zen arren, Iruñean Miren Amuritzaren arazoek denei eragin ziela uste du.

Finalean gozatu nahi du Mendiluzek, saio on bat egin: «ez nau beste ezerk kezkatzen, sari eta puntuetan ez dut pentsatzen, ez zait inporta momentu honetan, bertsoan egin nahi dut, bertsoan ondo egin; orain dela lau urte ondo atera zitzaidan, gustura gelditu nintzen emaitzarekin ia zentzu guztietan, eta beste hainbeste lortuko banu, pozik».

**Gaztelumendi, fresko**

Beñat Gaztelumendiren iritziz, txapela ez da Hernanitik urruti ibiliko; lehia txapelketaren hasieran baino irekiago dago eta buruz burukora pasatzeko orain izen gehiago aipatzen dira. Gogoia dauka BECen daukana erakusteko. Bere burua ez du buruz burukoan ikusten, «euren onena ematen badute hobeak direla uste dut, baina hor nago, ez daukat ezer galtzeko, nirea beti ematen dut eta badaukat oraindik txapelketa honetan egin dudana baino gehiago egiterik. Besteek egin-gutena ez dago nire esku».

«Fresko iritsi nahi dut finalera. Sekretua ez da teknikoki ondo egitea, gehiago da gaiak ikusi, gaitan ondo kokatu, bertso kideari entzun, erantzun, freskura hori eduki, eta hori ez dago entrenatzerik, gorputzaldiaren arabera da. Lo egin da, lasai, iritsi nahi nuke».

«Gaia eta kantatzen ari naizena ikusi, usaindu eta sentitu nahi dut finaleko ariketetan; ez dakigu berriz iritsiko garen horrelako plaza bate-tara, oso jende gutxi dauka finalean kantatzeko suertea edo aukera. Oso bertsolari onak gelditu dira bidean; uste dut hor gaudenok gure onena eman beharko dugula», esan digu, finala Añorgako jaiotetxean, besteak beste, Unai anaiarekin prestatu duenak.

**Unairentzat, berria**

Poz handia dauka Unai Agirrek, duela lau urte puntu eskas bategatik galdu zuen txartela eskuratuta. «Jendeak hori uste bazuen ere, ez nuen arantza handiegirik». Lortzen azkena izateak zapore hobe ote daukan galdetuta, ezetz dio, «igaltzua» duela: «egia da medioetan indar handiagoa duela. Bi kasuetan berdina gertatu zait, bai Maulen duela lau urte, eta baita Iruñean; azkena nintzen kantatzen, azken saioan. Horrek eragin handia dauka, jende guztia zuri begira dagoelako... aukerak ditu, azkena da kantatzen, aurrekoan ere horrela

izan zen, badoa... Horrek bola handiagotu egiten du».

Iruñean izatea ere berezia izan zen beretzat, bertan urte askoan bizitakoa baita Unai, han kantatu nahi zuen eta hala tokatu zen. «Lagun asko ditut eta oroitzapen onak ere bai».

Ilusio berezia du BECen kantatzeko. «Niretzako berria izango da, baina aldi berean hauen bidez gutxi gorabehera badakit zer izan daitekeen. Entxufatu nahi dut finalerako, tentsioa lortu, arriskua baitago, finalaurrekoa pasa eta egin beharreko dena egin dudana sentsazioa izateko, eta hori ez dut nahi. Saio bat falta zait, saio garrantzitsuena, goiz eta arratsaldekoa, oso esijentea... Ez dut nahi hara iritsi eta denek honek egin beharrekoa eginda duela ikustea, hortzak estutu eta ahalik eta ondoen egin nahi dut. Hortik aurrera, ezin diot gehiago eskatu lehenengo finalari. Ez nik bakarrik, oro har, saio on bat egiteak denok poztuko gaitu, baina nahi nuke honetan behintzat aho zapore on batekin bukatu, ez dakit eta horrelako aukera gehiagorik izango dudana».

**Laguna txapeldun**

Unai Agirrek lagun talde bezala ikusten du bertso Eskola. «Ez gara soilik kideak, betiko lagunak gara kasik. Entrenatzen aritu garen seiak, gehi laguntzera etorri diren beste guztiak. Gainera, beste bertsolariekin ere harreman oso ona daukagu: orduan, normalean norberak irabazi nahi izaten dugu, bestela ondo ondokoak eta beste edozein bertsolari izanda ere lagun batek irabaziko du».

Agirreraren iritziz, «aukera handiak daude txapela Hernanira ekartzeko, bai estatistikoki, bai maila ikusita. Zailena nik daukat, baina txapelak karga handia baldin badauka, beste bati lagunduko diot bizkarrean ekartzen... Nik uste, Maialenek eta Aitorrek aukera handiak dituztela, eta beste bertsolari batzuek ere bai. Oso irekia izango da finala». ||

finalean islatu eta beste neska-karen bat izango zela, baina aurreikuspenak ez dira bete. Aurreko finalistek ez dute kanerik egin, eta Iturriagak utzitako tokia, beste Unai batek, Agirrek. Estreinatzen den bakarra da Agirre, beste zazpiak 2013ko finalean egon ziren eta.

**Txikitatik, elkarrekin**

Oso pozik daude Bertso Eskolako beste bertsolariak, Unaiaren debutarekin. Aitor Mendiluze «oso gustura» doa BECera, «Unai egoteagatik bakarrik final ezberdina izango da». Maialenekin batera txikitatik ibili dira bertsoan, eta honen ustez, «oso polita da orain hiruok elkarrekin finalean kantatzea. Ea saio eder bat egiten dugun, jende asko egongo da, itxaropen handia du eta falta den bakarra saio on bat da».

Aritz Zerain ere aritu da hiru finalistekin bertso eskolan. Pozik da Unai finalean sartu delako, eta berarekin, «jendeak estimatzen duen bertsoakera bat. Aitorrek, Unai, Aginek edota Maialenek berak

ere egiten duena, bakoitzak bere ezaugarriekin».

Finalean diren denek daukate maila handia Aritzen iritziz, «ikusiko da horra iritsi nahi duenak lan asko eta ibilbide luzea daukala egiteko. Bertsolariaren denbora eskaini behar diola. Finalean sartu diren guztiak bizi dira nolabait bertsolarietarako, nahiz eta horretatik bakarrik ez bizi. Unai berak beste lanbide bat izan arren, bertsoa bere bizitzako parte da».

**Maialen, gogotsu**

Finalean kantatuko duten bertsolariak, txapela baino saio on bat eskatzen ari dira. Lujanbio gogotsu doa finalera, orain artekoa hobetzeko grinarekin: «gauza batzuekin oso konforme geratu naiz, eta beste batzuekin batere ez; orduan, zorionez badago zer hobetu eta zer borobildu».

Badaki faboritoetako bat dela: «nik nahiko nukeen saioa aterako balitzait, hortxe egongo nintzateke, inguruan; orain, nik nahiko nukeen saioa

**LEIREKIN**  
Leire Legorburu **fisioterapia**  
kol. zk. 1919

Elkano kalea 18, Hernani - 666 954 354  
leirekinfisioterapia@gmail.com

KIROL  
FISIOTERAPIA

---

FISIOTERAPIA  
UROGINEKOLOGIKOA

---

FISIOTERAPIA  
OROKORRA



**SOLUZIOAK** Sartu [www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus) web atarian eta denbora-pasa hauen soluzioekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

QRak  
irakurtzeko  
aplikazio batekin  
irakurri



**EGILEA**  
Garbine  
Ubeda  
(Aiarri)

## MARGOTU



## Kiroldegian

Iburak ibura, zati hauetatik batzuk ez daitezkie Kiroldegiko irudian. Zeintzuk dira?



Hartz iburako bi papin daude bertan. Ikusten al dituzu? Eta pingüinoa?



# ELURRA MENDIAN

Zenbat animalia ikusten dituzu?



## IZEIA

- Erreparatu Gabonetako zuhaitz honen apaingarriei. Bola guztiek dute pareta, salbu eta batek. Zein da?
- Zein ederrak diren elurrezko ponpinak. Zenbat ikusten dituzu? Eta zenbat Olentzero?

## SUDOKU

Ipini sudoku bakoitzeko letrak alagokien tokian. Gogoratu hiriak bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta lau laukiako area bakoitzeko.

B			I
L		B	
	A		



A		Z
		P
	Z	
O		



A	P	
		A
		I
		Z

## ikusi-makusi

**Olentzeroren gutunak jasotzeko azken astea!**

Opariak aukeratzen lagunduko dizugu.  
Baita hauek gordetzen, eta behar izanez gero, etxera bidaltzen.

www.ikusi-makusi.com    hernani@ikusi-makusi.com    Nagusia, 7. Hernani

facebook.com/ikusimakusi    **843 63 04 69**



■ ANTZERKIA

## Musikaren 'historiatik', zapata gorrietara

'Ez dok hiru' antzezlanak eskainiko dute gaur, 20:00etan kultur etxean; eta 'Zapata gorridun mutila' asteartean, 11:00etan.

PROTAGONISMOA izango du antzerkiak, egun hauetan, Astigarragan: emanaldi bat eskainiko dute gaur, eta beste bat asteartean.

Ez dok hiru izango da gaurkoa, Tartean antzerki konpainiaren eskutik. Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreek, Euskal Herriko imajinario musikaren errepasso ironiko, absurdo eta dibertigarria egingo dute, euskal musikaren benetako historia kontatuz. Zuzeneko musika ere izango

du antzezlanak, hiru aktore-musikari egongo baitira taula gainean. 20:00etan izango da, kultur etxean; eta sarrerak bertan jarriko dituzte salgai, ordubete lehenago, 6 euroan.

Kronikak, sarrera bikoitz bat zozketatu du, eta Harkaitz Galarraga izan da irabazlea.

**Haurrentzako antzerkia, astearte goizean**

Desberdina izango da astearteko antzerki saioa. Zapata gorridun mutila eskainiko du

Ados Teatro konpainiak, Herri Eskolako LH5 eta LH6 mailetako ikasleentzat. Kultur etxean izango da hori ere, 11:00etan, eta Udaleko Hezkuntza Sailak antolatu du saioa, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin.

Antzezlanak kontatuko du, mutilei gustatu ohi zaizkien gauzak gustuko ez dituen mutiko baten istorioa. Helburua da, laguntzea aniztasuna ulertzen, gizartearen elementu aberasgarri gisa. ■

■ UDALA

## Emakumeon Plaza berrituko du Udalak, datorren urtean

Gobernu Taldeak adierazi du, «birmoldaketa urbanistikoaz gain, plazari identitatea eman» nahi diola, herritarren bilgune izateko.

EMAKUMEON Plaza berritzea izango da, 2018an, Udala Gobernu Taldearen helburuetako bat. Hala jakinarazi du egun hauetan, prentsa ohar bidez: «Udalak plazaren birmoldaketa urbanistikoa egingo du, zonaldea birgaitzeko asmoz, oso hondatuta baitago», azaldu du Gobernu Taldeak.

Baina berritu bakarrik ez, «identitatea» ere eman nahi diote: «erreformatik haratago, identitate propioa eman nahi diogu Emakumeon Plazari».

Joan den urtean inauguratu zuten Emakumeon Plaza, izen berriarekin, emakume astigarrak omentzeko, «gobernu jeltzaleak berdintasunarekin daukan konpromisoaren erakusle». Eta orain, azaldu dute, obratik haratago joatea «ezinbestekoa» ikusten dutela, «espazio atsegina bat sortzeko, emakumeen arteko bilgune izango dena; eta pasatzeko toki bat izateko, alde zaharreko plaza garrantzitsuenetako bi lotuko dituen»: Joseba Baran-

diaran eta Pentagono plazak», azaldu dutenez.

**Harremanetan, arkitekto espezialista batekin**

Dagoeneko jarri dira harremanetan, genero gaitan aditua den arkitekto batekin, obraren aholkulari lanak egiteko. Eta aurreratu dute, urte hasieran partehartze prozesu bat egingo dutela, herritar nukleo desberdinekin, «erabakitzeko nolakoa izango den astigartar guztion Emakumeon Plaza». ■

■ UDALA

## Zer jarri, Sagardo Plazako jolastokian?

Auzokoek bozkatuko dute, datorren ostiralean, nolako jolastokia nahi duten.

MARTXAN dira Sagardo Plazako obrak; eta orain, bertako jolastokian zein elementu jarri erabaki, auzotarrei galdetuko die Udalak. Hiru aukera desberdin proposatu dizkie herritarrei, eta gutun bidez helarazi dizkie etxera. Haundiago ikusi nahi dituenak, ikusgai

dauzka udaletxean, kultur etxean eta herriko hainbat establezimendutan.

Hiru aukera horien artean, baten alde bozkatu beharko dute auzotarrek; datorren ostiralean, 12:00etatik 14:00etara, eta 19:00etatik 20:00etara, Sagardo Plazan bertan. ■

■ ASTIGARRAGAKO HERRI ESKOLA

**Erakusketaren aurkezpena, asteartean**

ZientziaKIDE proiektua burutu dute, Herri Eskolako 6garren mailakoek, Elhuyar Fundazioarekin batera: Urumea ibaian eta bere bi erreka bizi diren arrain espezieak detektatu dituzte, eta egindako lanarekin, erakusketa jarri dute ikastolan. Asteartean aurkeztuko dute, 09:30etan. Gero, urtarilaren 22tik, kultur etxean egongo da ikusgai. ■

■ LITERATURA

**Bi zita literaturarekin, datozen egunetan**

Bi zita izango dira liburutegian, datozen egunetan. Astelehenean, literatura solasaldia egingo dute, 19:30etan; eta Olivier Bourdeauten *Esperando a Mister Bojangles* liburuaz ariko dira. Asteartean, berriz, Irakurketa Klubaren saioa izango da 19:30etan. Birgit Vanderbekereren *Muskuluak afaltzeko* irakurriko dute, Saioa Ixabel Etxeberriarekin. ■

■ KIROL TABLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA			
Muz. Emig. Intermun.	Naruzano-Mundano	Hararain	Gara 20:00
Muz. Igo Euzkoak	Mundano-Fantaburu	Zokuekandegin	Gara 17:45
Muz. Kadetok Oñar. Milla	Sooting-Herri-Mundano	Herriak	Bikar 12:00
Muz. Kadetok 1go milla	Mundano-Estakara	Zokuekandegin	Gara 15:00
Muz. Kadetok Oñar. Milla	Mundano-Saio	Zokuekandegin	Gara 18:00
Muz. Kadetok 1go milla	Herriak-Intermunicipal	Zokuekandegin	Gara 18:00
Muz. Kadetok Oñar. Milla	Derio-Mundano	Biarriak	Gara 08:00
Muz. Intermun.	Alto-Mundano	Plaza	Gara 10:00
BASKIBALOA			
Muz. Gipuzkoako 1go milla	Mundano-La Salle-Urdulaz	Kirolegia	Bikar 11:00
Muz. Gipuzkoako 1go milla	Mundano-La Salle-Ondel-Dobak	Kirolegia	Gara 18:00
Muz. Gipuzkoako 2. milla	Mundano-La Salle-B-Gartzungo-Saskibaloak	Kirolegia	Gara 11:15
Muz. Juniorak 1go milla	Mundano-La Salle-Arriarte-Mondragon	La Salle	Gara 16:00
Muz. Juniorak 2. milla	Intermunicipal-Mundano-La Salle	Herriak	Gara 12:00
Muz. Kadetok	Mundano-La Salle-Intermunicipal	Kirolegia	Gara 18:00
Muz. Kadetok	Intermunicipal-Mundano-La Salle	Kabak-Porlan	Bikar 12:00
ESKUBALOA			
Muz. Kadetok	Urdulaz-Mundano	Urdulaz	Bikar 10:45

**kronikalari**  
BAT  
**€uro**  
BAT

**1k**

AZAROAREN 18TIK  
ABENDUAREN 27RA

ASTE HONTAN KRONIKALARI EGIN DIRA:



ESKUBALOI TALDEA - INFANTIL NESKAK



HERNANIKO BILGUNE FEMINISTA

\*ARGAZKI GEHIAGO:  
WWW.KRONIKA.EUS



## GOIZUETA ESKU PILOTA

# Xanet Apezetxea, txapelkun Bortzirietan

Umore Ona Txapelketan, berriz, bost partidutatik hiru irabazi dituzte goizuetarrek, azkeneko astean.

MAILA politean dabilta pilotari goizuetarrak, azkeneko asteotan; eta jantzi dute txapelarik ere!

Xanet Apezetxeak gazteak lortu zuen txapela preziatua, aurreko asteburuan, Ander Pagola beratarrarekin bikotea osatuta; 18-12 nagusitu ziren finalean.

Baina etxeko txapelketan ere, ondo ari dira goizuetarrak, Umore Ona esku pilota txapelketan. Azkeneko aste honetan, jokatutako bost partiduetatik hiru irabazi dituzte. Larunbatean, 18-17 irabazi zuten Salaberria eta Ruiz benjaminak. Igan-dean, berriz, 18-13 nagusitu ziren Legarreta eta Elizegi alebinak; baina galdu egin zuten Aizkorbe



Xanet Apezetxea, Bortzirietako txapelarekin.

Argazkia: UMORE ONA

eta Apezetxea jubenilek (17-22). Hala ere, erreban-txa hartu zuten asteazkenean, eta Santamaria eta Telletxearen kontra-koa irabazi zuten (22-13). Egun horretan, Salaberriak eta Ruizek jaso zuten porrota (5-18).

### Beste 12 partidu, gaur eta bihar

Gaur eta bihar, 10:00etan hasiko dira partiduetak, eta 12 jokatuko dira guztira. Gaur ariko dira Salaberria-Ruiz, Apezetxea-Sagardui eta Legarreta-Elizegi; Aizkorbe-Apezetxea, bihar. ||

## ASTIGARRAGA TXIRRINDULARITZA

# Hiru kategoriatatik bitan, astigartarrak dira lider!

Jaime Romerok lortu du lidertza kadeteetan, bi garaipen lortuta; eta mantendu du Urko Semperenak, openean.

MAILA izugarrian ari dira txirrindulari astigartarrak, Pista Sarian. Datu bat nahikoa da hori ikusteko: hiru kategoriatatik bitan, astigartarrak dira lider; Urko Semperena open kategorian, eta Jaime Romero kadeteetan.

Joan den asteburuan jarri zen lider Romero, laugarren jardunaldian, bi probak irabazita. Aurrenekoan, *scratch*ean, hiru itzuliren ondoren eta 13 falta zirenean, ihes egin zuen bakarrik; baita helmugaraino eutsi ere! Sekulako esfortzua egin da nagusitu zen. Nekeak ez zion eragotzi, hala ere, puntuazioan ere bikain aritzea, eta taldekideen kontrolari esker, esprin-

tak lehiatu eta berriro irabazteko puntuak pilatu zituen astigartarrak. Gainera, taldekideen lana eskertzeko, Iker Iriondo hernaniarrari lagundu zion esprintean, bigarren izateko proban.

Juniorretan, aldiz, ez zuen egunik onena izan Telmo Semperenak. *Tempo race* proban, azkeneko esprintean bakarrik lortu zituen puntuak, zazpigarren bukatzeko; eta puntuazioan, tarteko esprint batean puntuatuta, 14garren bukatu zuen. Horrela, 10garren dago orain.

**Urko Semperena lider oraindik, 28 puntugatik** Urko Semperenak, bere aldetik, lidertza manten-

du zuen open kategorian. Eliminazioan ondo aritu zen, baina lau bakarrik geratzen zirenean gaizki kokatu zen; laugarren izan zen, beraz. Puntuazioan, berriz, sailkapeneko aurrenekoen arteko kontrola izan zen nagusi, eta beste batzuk izan ziren protagonista. Semperenak, hala ere, esprint ederra egin zuen bukarren, proban zortzigarren izateko. Horrela, 28 punturen aldea dauka, Igor Arruti bigarrenarekin.

Gaur eta bihar, saio bikoitza izango da, Donostiako belodromoan: Pista Sariko bosgarrena gaur, eta Kluben Gipuzkoako Koparen hasiera bihar. ||

## GOIZUETA AZARO KULTURALA

# Obradore bihurtuko dute gaur, Eskolako jangela

Turroi eta mazapan ikastaro emanen dute, goizean. Datorren ostiralean, berriz, antzerkia ganbaran.

GOZOGINTZA eta antzerkia ikutuko ditu Azaro Kulturalak, egun hauetan, Goizuetan. Izan ere, bakoitzetik saio bana prestatu dute, urtea bukatzeko.

Batetik, turroiak eta mazapanak egiten ikasteko tailerra izanen dute gaur. Horretarako, obradore bihurtuko dute Eskolako jangela, bertan egiten baitute ikastaroa, goizeko 10:00etan hasi eta eguerdiko 13:00ak arte. Hiru ordu horietan, Cebank sukaldaritza eta ostalaritza eskolakoak izanen dituzte irakasle, izena eman duten herritarrek. Izan ere, aurrez apuntatu beharra zegoen, Amaia kafetegian; asteazkena zen azkeneko eguna.

### Zer esango digute, eta nola, datorren ostiralean?

Aipatutako bigarren saioa, antzerkia izanen da. Datorren ostiralean jarri dute horretarako zita, abenduaren 22an. Arratsaldeko 18:30etan hasita,

udaletxeko ganbaran eskainiko dute antzezlan, Teresa Lopez de Munain eta Garazi Olaizola aktore eta monologistek, bertaratzen diren guztientzat.

Antzezlanaren izenburua, abstraktu xamarra jarri dute: *Zera... Nola esango dizut, bada?* Zer ote daukate ikusleei esateko, eta nola esango ote diete azkenean? Jakin nahi duenak, ostiral arratsaldean dauka zita, udaletxeko ganbaran.

### Errefuxiatuei buruzko hitzaldia, urtarrilaren 12an azkenean

Eta data jarri diote, baita ere, Lucia Etxeberriak eta Nafarroako Brigadisten Elkarteko kideek emanen duten hitzaldiari: *Errefuxiatuak eta emakume errefuxiatuen egoera Grezian*.

Urtarrilaren 12an izanen da azkenean, arratsaldeko 18:00etan hasita, udaletxeko ganbaran. Abenduaren 2an izatekoa zen berez, baina atzeratu egin zuten, elurtearen ondorioz. ||

## ASTIGARRAGA UDALA

### Errehabilitaziorako makinak, Eguneko Zentroan

Errehabilitaziorako hainbat makina jarri berri ditu Astigarragako Udalak, Eguneko Zentroaren aurrean, Tranbia ibilbidean. Gorputzeko atal ezberdinak lantzeko dira, bereziki esku eta besoetakoak: behatzak indartu, ukondoak, sorbalda... Bizikleta ere badago. Makina guztiak egokitu daude gurgildun aulkian dabilzanentzat, baina ezintasunik ez dutenek erabili nahi badute, Eguneko Zentroan eskatu dezakete aulkia. Bestalde, Udalak aurreratu du, bi aste barru egongo dela prest Portutxoko parke osasungarria. ||

### Astelehenean hasiko dira banatzen, udal egutegia

2018 urteko egutegia prest dauka Udalak, Astigarte elkartearen argazkiekin osatua; eta etzi hasiko dira banatzen: udaletxean, kultur etxean eta Astikoko dendetan. ||

## ASTIGARRAGA ZINEA

### 'Pixi Post eta opari-emaileak', gaur zortzi

Datorren larunbatean izango da bueltan zinea, Astigarragako kultur etxean. *Pixi Post eta opari-emaileak* filma jarriko dute, 17:00etan. Sarrerak 2 euroan salgai, interneten: [www.astigarraga.eus](http://www.astigarraga.eus). ||

## ZUBI-LANA

Lan bila dabilen herritarrek bertan mezu bat jarri nahi badu, astero jakinarazi beharko dio Kronikari; mezuaz azaldu beharko du zein lan mota bilatzen duen edo zertarako eskaintzen duen bere burua. Aldiz, lana eskaintzen dutenek, iragarki merke gisa argitaratu beharko dute lan eskaintza; eta Kronikak, Zubi-Lana txokoa argitaratuko die, debalde.

Bi kasuetan, ostiral eguerdia baino lehen, iragarkiak [zana@kronika.eus](mailto:zana@kronika.eus) helbidera bidali behar dira edo 943 33 08 99 telefonora deituta azaldu. Gehienez 235 karaktere onartuko dira, hutsuneak barne.

## LAN-BILA

**Esperientzia haundiko transportista lan bila.** Mota guztietako karnetak dauzkate eta bidaiari nazionalak eta internazionalak egiteko pronto nago. Almazenero moduan ere arituko nintzateke. Deitu: 685 708 805.



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) | **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga)  
**DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
**ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 (Hernani) 943 33 56 44 (Astigarraga) | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103  
✚ / **Egunez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** / **Gauz: Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087**

**EGURALDIA**  
**GAUR** Euri kontuekin jarraituko du eguraldiak. Zaparradak botako ditu eta ipar partean sarrago gainera. Arratsaldean eta gauean euri gutxiago egingo du.  
**Min.6° / Max.10°**  
**BIHAR** Eguraldiak egonkortera egingo du. Goizean lainotsu egongo da eta baliteke euri pixka bat egitea. Egurditik aurrera garbitzera egingo du.  
**Min.5° / Max.10°** (euskaime)



## ■ EUSKO JAURLARITZA-EUSKALIT

# Kudeaketa aurreratuari diploma, Kronikak

*Eusko Jaurlaritzak eta Euskalitek errekonozitu dute Urumeako Kronikak egindako lana, kudeaketa eredu aurreratu ezartzeko.*

ASTEARTEAN ospatu zuten 2017 urteko gala, Eusko Jaurlaritzak eta Euskalitek, Donostiako Kursalean. Eta bertan, banatu zizkieten A sariak eta diplomak, kudeaketa aurreratuaren bidean lanean ari diren 48 enpresa eta erakunderi.

Eta Urumeako Kronikak ere, errekonozimendua jaso zuen bertan: Kudeaketa Aurreratuari diploma jaso zuen, Jose Hernandez Euskaliteko lehendakariaren eskutik. Horrekin, Euskalitek eta Eusko Jaurlaritzak errekonozitu dute, Urumeako Kronikak egindako lana, kudeaketa eredu aurreratu ezartzeko, bere funtzionamenduan eta egituran.

### Bi urtetako ibilbidea

2015eko bukaeran hasi zuen bide hori, Kronikak. Aurrena,

kanpo kontraste bat jaso zuen Euskaliteko ebaluatzaile taldearen eskutik. Horretan, Kronikaren funtzionamendua eta kudeaketa modelo aztertu zuten Euskalitek, eta indarguneak zein hobetzeko arloak identifikatu zituzten elkarrekin.

Bide hori urratzen hasita, ikastaro bat jaso zuen Kronikak, 2016 urtean zehar, Tokikomeko beste hainbat hedabideekin batera. Ikastaro horretan ezagutu zituzten kudeaketa eredu aurreratu ezartzeko jarraibideak, eta ondoren, barne lanketa potoloa egin zuen Kronikaren lantaldeak: ikuskera, misioa eta baloreak hausnartu eta finkatu, helburu estrategikoak markatu, lantalde eta prozesu berriak sortu... Horrela osatu zuen, 2017-2019 eperako plan estrategikoa, urtez urteko

helburu eta ekintza zehatzekin.

Hasitako bide horri jarraitzea emateko, beste ikastaro bat jaso zuen Kronikak, 2017ko aurreneko erdian; eta hirugarren bat, urria eta azaroan.

Eboluzioa ikusteko, beste kanpo kontraste bat jaso zuen Kronikak, abenduaren 4an, eta egindako lana egiaztatu zuen Euskalitek, diploma emanda.

### Bide luzea oraindik, egiteko

Jasotako errekonozimendua, bide onean dagoela erakutsi dio Kronikari; baina badaki, oraindik bide luzea daukela egiteko, norabide horretan; eta lanean jarraitzeko konpromisoa hartu du.

Kronikak bezala, Tokikomeko beste lau hedabideek ere jaso dute diploma: Anbotok, Baleikek, Goienak eta Ttipi-Ttapak. ■



Tokikomeko lau hedabideek jaso dute Kudeaketa Aurreratuari diploma: Anbotok, Baleikek, Goienak, Ttipi-Ttapak eta Urumeako Kronikak. Argazkian, Arantza Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturarako sailburuarekin.

## IRAGARKI MERKEAK

Alokatzeko pisu bila. Hernani edo Donostia inguruan. Deitu 671 832 054

**ETXEO KONPONKETAK** egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

**EUSKO JAURLARITZA** **GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK**  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)  
**DIRUZ LAGUNDUA**

**Kenia**

**NOGOGA** **IRTEGA MANTZEAN**  
INDAR OIBITUTAROK TALEZ BIDEAN.  
LABURTZEK IRTEGA.

943 373 613

**Samitek**

Balago makinak salmenta eta mantentzeak  
samitek@samitek.es  
www.samitek.es

**TOSHIBA**

INFORMATIKA SAIL BERRIA

943 11 77 44

Dokumentuen kudeaketa  
Ez galdu paperak

**Ginekologoa daukazu Hernanin, María Gregorio Alzua medikua**

Hernaniko mediku zentroan (Urbietza kalea 18, behea)

- // Urteroko azterketak
- // Haurdunaldi kontrolak
- // Erditzeak
- // Kirurgia
- // Amniozentesiak
- // Antisorgailuen kontrola
- // DIU...
- // Azkura, onddoak

Hizordua eskatu  
**943 55 76 72ra**  
deituz

**ORDUTEGIA**  
10:00etatik 13:00etara  
eta 16:00etatik 18:30etara